

JAKIN ETA SENTITU ADIMENA ETA BORONDATEA

Euskal hiztuna, subalternoa? Hitzun minorizatuari
hurbilpen bat Gramsci eta Spivaken ekarpenen argira

Hizkuntza-plangintza graduondokorako sakontze-egitasmoa, 2015-2016

Egilea: Enara Azkue Iruretagoiena

Tutorea: Lorea Agirre Dorronsoro

Laburpena

Zer da subalternitatea? Lan honen lehen atalean, galdera horri erantzuteko ahalegina egiten da. *Subalternitate* terminoaren lehen erabilerara jotzen da, Antonio Gramsciren teoriara, hain zuzen ere, eta teoria horren oinarri diren askotariko elementuak aztertzen dira. Jarraian, termino horretatik abiatuz lan egin duten mugimenduetako batzuk jasotzen dira, haren esanahia osatzeko ahaleaginean, hala nola Indiako eta Latinoamerikako poskolonialismoa eta borroka feminista. Bigarren atala, berriz, euskal hiztunen subalternitateari buruzko da, eta hasteko, galdera honi erantzun nahi zaio: subalternoak gara euskal hiztunok? Galdera horri erantzuteko, euskal hiztunon egungo errealitateko hainbat adibide aurkezten dira, betiere aurretik landutako oinarri teorikoen harira, eta, amaitzeko, euskal hiztunok subalternitatea den kokapen horretatik ateratzeko balia genezakeen proposamen baterako zenbait ideia aurkezten dira.

Jakin eta sentitu. Adimena eta borondatea. Euskal hiztuna, subalternoa? Hitzun minorizatuari hurbilpen bat Gramsci eta Spivaken ekarpenen argira

AURKIBIDEA

«Oraingo, euskaldun egiten gaituena subalternitatea da»	4
Kokapen-gerra	5
Indian hasi eta Latinoamerikaraino	13
Mintza daiteke subalternoa?	20
Ezkututik, argitara	27
Subalernoak gara euskal hiztunok?	42
Nola lor dezakegu hitz egitea?	51
Bibliografia	60

Jakin eta sentitu. Adimena eta borondatea. Euskal hiztuna, subalfernoa? Hiztun minorizatuari hurbilpen bat Gramsci eta Spivaken ekarpenen argira

«Oraingoz, euskaldun egiten gaituena subalfernitatea da»

Jule Goikoetxea, *Euskaldun egiten gaituena*,

in Berria, 2015eko ekainak 10.

Eta plaust egin zuten gure baserri zaharraren zimendu ustez irmoek. Baina zergatik eragin zuen hainbesteko zalaparta Jule Goikoetxearen artikulu hark, baita, nolerebait, UEUK eta Jakin aldizkariak elkarlanean antolatutako “Euskara naziogintzaren eta estatugintzaren erdian” jardunaldian erabili zituen ideiek ere?

Ezin artikulua osorik xehatu hemen, baina bai, gutxienez, bertan jasotzen diren zenbait ideia ekarri.

Ez da esentzia kontua. Euskaldunak eta emakumeak parez pare, eta kokapen horren berri emateko, *subalfernitate* kontzeptua. Gramsciren *Kartzelako koadernoak* lanetik datorkigu termino hori, eta ezin uler daiteke bazter uzten baditugu hori bezain eztabaida-piztaile izan daitezkeen beste termino batzuk. *Subalfernitate* terminoari atxikita ageri ohi dira *hegemonia*, *mendekotasuna*, *marjinaltasuna*, *eraikuntza soziala* eta beste hainbat, nola aipagai dugun artikuluan hala kontzeptu nagusi horren inguruko lan askotan.

Botereak hitz egiten du, eta botereak du balioa. *Boterea* eta *balioa* terminoak aipatzen ditu Jule Goikoetxeak funtsean kokapentzat har dezakegun horri buruz hitz egiteko. Ez du hainbesteko ez botererik ez baliorik euskaraz esaten denak, inguruan dituen hizkuntza handiek jaten baitute hizkuntza horretan esandako hitzek behar luketen espazioa. Ez dute hainbesteko ez

Jakin eta sentitu. Adimena eta borondatea. Euskal hiztuna, subalternoa? Hiztun minorizatuari hurbilpen bat Gramsci eta Spivaken ekarpenen argira

boteretik ez baliorik emakumeen hitzek, inguruan dituzten gizonezkoek jaten baitute emakumeek esandako hitzen indarra. Beraz, ez euskaldunek ez emakumeek ezin dute hitz egin.

Kokapen hegemonikorik ezean, subalternitatea besterik ez. Eta kokapen hegemoniko hori ezin banandu daiteke boteretik: botereak ematen du indarra; botereak ematen du, Gayatri Spivakek aipatzen duen moduan, hitz egiteko aukera; edo botereak kentzen die batzuei aukera hori, eta botereak ematen du prestigioa.

Eraikuntzen iraunkortasuna. Mendeak eta mendek izan ditu oinarri gaur egungo gizarte-eraikuntzak, iraganean baititu sustraiak, eta irakatsi, esan, agindu edo inposatu digutena sartu digute barru-barruraino. Eta barru-barruraino sartu diguten hori da hegemoniko, subirano.

Patriarkatuak esaten digu esentzia batek egiten dituela euskaldunak euskaldun eta emakumeak emakume. Baina ez dira esentzialak, ez dira ez berezko ez natural, gizarte-eraikuntzak baizik ez dira bai euskalduna bai emakumea, hegemoniak ahultasunak izendatzeko baliatzen dituenak, eta, hala kontsideratzen diren heinean, alboratuak eta zokoratuak dira.

Beraz, zimendu berriak beharko ditu, ezinbestean, gure baserri zaharrak.

Lan honetan, lanaren helburu ez den arazo bati buruz ez aritzeko, eta, bestelakorik adierazi ezean, euskaldunei buruz aritu beharrean, euskal hiztunetz mintzatuko gara.

“Kokapen-gerra”

Subalternoak gara euskal hiztunok? Galdera horri erantzuteko, ezinbestean jakin behar dugu zer den subalterno izatea. Jada esan dugu

Jakin eta sentitu. Adimena eta borondatea. Euskal hiztuna, subalternoa? Hiztun minorizatuari hurbilpen bat Gramsci eta Spivaken ekarpenen argira

Gramsciren lanean aipatzen dela terminoa, eta hari buruzko literatura mardula ekarri du horrek. Haatik, Gramscik ez du terminoari buruzko definizio argi eta adierabakarririk ematen bere lanetan, erruz aipatzen badu ere, eta, ondorioz, askotariko interpretazioak izan ditu; esan izan da, gainera, *proletalgo*, *langile-klase* eta *nekazari* terminoak zentsuraren atzaparretan ez geratzeko erabili zuela. Hala ere, ez da erabateko adostasunik gai horretan, termino horren definizioan bertan ez den moduan. Horregatik, terminoaren gaineko zertzelada batzuk ikusiko ditugu, termino horrekin lan egin ahal izateko hurbilpen modura.

Kartzelako koadernoak laneko *History of the Subaltern Classes: Methodological Criteria* atalaren lehen paragrafoan bertan argi ikusten da Gramscik klase subalterno deritzenak aztertzeko ideia garrantzitsuenetako bat dena:

“The historical unity of the ruling classes is realised in the State, and their history is essentially the history of States and of groups of States. But it would be wrong to think that this unity is simply juridical and political (though such forms of unity do have their importance too, and not in a purely formal sense); the fundamental historical unity, concretely, results from the organic relations between State or political society and “civil society” (Gramsci, 1971)”.

Lehen paragrafoan bertan aipatzen du garai hartako klase gidariak batasunaren ondorio direla, eta estatua dutela hori gauzatzeko baliabide. Klase horien historia, hortaz, estatuena da, estatuen historia, eta baita estatua osatzen duten taldeena ere. Batasun hori, ordea, estatuaren edo gizarte politikoaren eta gizarte zibilaren arteko harremanen ondorio da.

Gramsciren teoriako hiru kontzeptu garrantzitsu ageri dira paragrafo horretan bertan, eta hirurak dira funtsezkoak haren teoria ulertzeko: estatua,

Jakin eta sentitu. Adimena eta borondatea. Euskal hiztuna, subalfernoa? Hiztun minorizatuari hurbilpen bat Gramsci eta Spivaken ekarpenen argira

gizarte politikoa eta gizarte zibila. Baina zer adiera dute hiru kontzeptu horiek Gramsciren pentsamenduan? Estatu definitzeko, eta Mendebaldeko estatuaz ari dela, esaten du estatu kanpo-lubakia dela, eta gotorlekuen eta lur-mugimenduen sistema boteretsua dagoela haren atzean. Estatu bi gizarte-motaren baturatzat hartzen du; batetik, gizarte politikoa dugu, eta bestetik, gizarte zibila. Bi gizarte-mota horien arteko orekaren emaitza izango litzateke estatu; hala ere, kontuan izan behar da onartzen duela gauza bat eta bera direla gizarte politikoa eta gizarte zibila egoera jakin batzuetan, estatu batzuen kasuan.

Antzinaroan eta Erdi Aroan, oso murrizta zen estatu-zentralizazioa, eta gizarte-taldeek osatzen zuten estatu hura. Gizarte-taldeek osatutako estatu horretan, beren kasa bizi ziren talde subalfernoak, eta beraien erakundeak zituzten. Autonomia zuten, eta, horrenbestez, autonomoak ziren. Erakunde horiek estatu-funtzioak izan zitzaizkiren, eta, beraz, estatu-mota hori gizartearen federazioztat har liteke. Erakunde bakoitzak bere funtzioak zituen, eta ez ziren bata bestearen mendekoak. Boterea zuten guztiek, bakoitzak zegokion eremuan. Talde bakarra geratzen zen gizarte-mota horretatik kanpo, hain zuzen ere, esklaboak.

Estatu modernoak, ordea, talde gidarien edo menderatzaileen hegemonia aktiboaren mende jartzen ditu gizarte-talde horiek, eta ordura arte izan zuten autonomia galdu zuten. Argi ikusten da autonomiaren galera hori estatu modernoaren garaiko diktadura-aldietan: autonomiarik eta botererik gabe uzten dira gizarte-talde horiek; botere guztia diktadorearen eskuetan pilatzen da, eta, hala, haren hegemoniak mendeko egiten ditu gainerakoak. Horrenbestez, talde hegemonikoek menderatzen dituzte gainerako taldeak.

Gramscik berak aipatzen du bere lanean bereizi egin behar direla bai Hegelen bai bere lanetan gizarte zibil terminoak duen esanahia. Gramsciren

Jakin eta sentitu. Adimena eta borondatea. Euskal hiztuna, subalternoa? Hitzun minorizatuari hurbilpen bat Gramsci eta Spivaken ekarpenen argira

arabera, gainegituraren parte da gizarte zibila; Hegelentzat, ordea, azpiegitura da. Gramsciren teoriaren arabera, gizarte politikoaren aparatua da estatua; gizarte zibila, berriz, gainegituraren uneak; izan ere, Gramsciren arabera, gainegitura da borroka garrantzitsuenak izaten diren eremua, eta, beraz, gizarte zibila gainegituraren parte da borrokaren bat aurrera eramaten duenean. Estatua gizarte-egiturarentzako gizarte zibila eratzeko tresna da, baina estatuak hori egiteko nahia izan behar du, aukerarik ematen ez badu, ezinezkoa izango baita.

Kartzelako koadernoak laneko History of the Subaltern Classes: Methodological Criteria atalaren bigarren paragrafoan, berriz, klase subalternoez mintzo da, lehen paragrafoko ideiarri jarraikiz:

“The subaltern classes, by definition, are not unified and cannot unite until they are able to become a “State”: their history, therefore, is intertwined with that of civil society, and thereby with the history of States and groups of States (Gramsci, 1971)”.

Argi ikusten denez, klase subalternoek, subalterno izateari uzteko, bide bakarra dute: ‘estatu’ bihurtzea, eta gizarte zibilaren historian barneratzea, edo , bestela esanda, estatuen eta estatuko taldeen historian.

Gramscik ulertzen zuen klase subalternoak estatutik kanpo daudela, eta, beraz, ez direla estatuaren parte. Ideia horiek gaur egungo errealitatera ekarrita, estatuz antolatutako gaur egungo gizartean, bada, marjinan dagoena izango litzateke subalterno; beste hitz batzuen bidez esanda, estatuak estatu-aparatutik kanpo uzten duena. Kontuan izan behar da zer nolako gizartean bizi zen Gramsci. Izan ere, El Habib Louaik dioen moduan (El Habib Louaik, 2012), gizarte jakin bateko behe-mailako jendea zuen buruan Gramscik talde horiez mintzo zenean, eta garai hartan langileak eta lurra lantzen zutenak ziren Alderdi

Nazional Faxistako buruek zapaltzen eta diskriminatzen zituztenak. Horiek ziren, bada, subalternoak.

Gramscik dio klase subalternoak aztertzeko, arlo hauek ikertu behar direla:

“1. The objective formation of the subaltern social groups, by the developments and transformations occurring in the sphere of economic production; their quantitative diffusion and their origins in pre-existing social groups, whose mentality, ideology and aims they conserve for a time; 2. their active or passive affiliation to the dominant political formations, their attempts to influence the programmes of these formations in order to press claims of their own, and the consequences of these attempts in determining processes of decomposition, renovation or neo-formation; 3. the birth of new parties of the dominant groups, intended to conserve the assent of the subaltern groups and to maintain control over them; 4. the formations which the subaltern groups themselves produce, in order to press claims of a limited and partial character; 5. those new formations which assert the autonomy of the subaltern groups, but within the old framework; 6. those formations which assert the integral autonomy, etc”.

Hala, ondorioztatzen du oso konplexua dela talde subalternoen historia, eta historia horrek jaso egin behar duela taldearen jardura guztia, talde subalternoak osorik hartuta; baina, horretaz gain, esaten du ezin direla ahaztu talde menderatzailearen jarrerak, ezta zer ondorio dituzten ere talde menderatzaileek talde subalternoetan egiten dituzten ekintza eraginkorragoek, estatuak babesten dituenek. Izan ere, esaten du talde subalternoen artean, izango dela nolabaiteko hegemonia eragingo duenik, edo horretan ahaleginduko denik, eta hori zehaztu egin behar da hegemonia hori eragin

dezaketen guztien bilakaera aztertuta, talde hegemonikoen elementuak baitituzte, edo hegemonia hori baliatzen duten beste talde subalterno batzuenak. Hori guztia azaltzeko, Italiako Berpiztea eragin zuten indarrak aztertzen ditu Gramscik bere lanean; izan ere, indar horiek boterea hartu zutenean, Italiako estatu modernoa sortu zuten, baina izan zuten bestelako laguntzailerik ere boterea hartu ahal izateko. Estatu bihurtuko baziren, lehenagotik zeuden indar hegemonikoak menderatu edo ezabatu behar zituzten, eta, horretarako, haien onarpen pasiboa edo aktiboa lortu. Horiek horrela, garrantzitsua da talde horien guztien artean zer korrelazio-indar izan ziren aztertzea, nola igaro ziren talde subalterno izatetik hegemoniko edo menderatzaile izatera, eta alderantziz. Hala lortu zuten estatu berri hura osatzea, eta handiak izan ziren taldeen arteko harremanen aldaketak eta gizarte-ordenarenak berarenak.

Talde subalternoak zatikatuak direla zioen Gramscik, haien historia zatikatua dela, eta gaineratzen zuen taldeen egoera sozialaren ezaugarri dela zatikatze hori. Irmo egiten zuen garai horretarako jada behin baino gehiagotan aldarrikatu zen fronte bakarraren formula politikoaren alde, eta horrek adierazten zuen, batetik, talde subalternoetako bakoitza batzea, nolabait homogeneizatzea, heterogeneotasuna inolaz ere baztertu gabe, eta, bestetik, talde subalternoek elkarrekin bat egitea.

Ez zuen ukatzen horretan ari zirenik, baina esaten zuen batasun bila aritzen diren arren, batasun hori etengabe apurtzen ahalegintzen direla talde gidaria, menderatzaileak, mugimendu hori haien interesen aurkakoa dela jakitun. Horrenbestez, ezinbestean da zatikatua talde horien historia. Eta talde horien historia zatikatua izan ez dadin, aukera bakarra dago: talde subalterno izateari utzi, eta, agintzen duen taldearen mendekotasunetik aterata, beraien historia kontatzea. Alegia, subalterno izateari utzi eta hegemonia lortuta,

Jakin eta sentitu. Adimena eta borondatea. Euskal hiztuna, subalternoa? Hiztun minorizatuari hurbilpen bat Gramsci eta Spivaken ekarpenen argira

osotasuna eta batasuna irabaziko dituzte. Hortaz, klase subalternoek hautsi egin behar zituzten talde hegemonikoekiko loturak, eta horretarako, egoeraren jabe egin, egoera horrekin amaitzeko irmotasuna hartu, eta talde menderatzailearen agintepean ez egoteko borroka egin behar zuten. Aske izateko mugimendu hori klase menderatzailea garaitzearekin eta autonomia lortzearekin soilik bultzatuko da. Eta garaipenak emango die historia hori kontatu ahal izateko aukera, hegemonikoak izango direlako, ordena berri bat sortuko dutelako.

Hala ere, iraunkorra izan beharko du garaipenak hori guztia egin ahal izateko, eta ezin dute pentsatu garaipena eskura dutela; izan ere, pentsamendu horri helduz gero, hartu duten bidea gal dezakete. Baina nola lor daiteke garaipen hori?

Hegemonia da horren guztiaren ardatza autore honengan, hegemonia baita estatu edo ordena berri bat sortzeko ezinbesteko bitartekoa, eta, baita, nolabait, helburua ere. Esan dugu Gramscik argi ikusten duela talde subalternoek batu egin behar dutela, batasunak soilik emango baitie garaitzeko aukera. Batasun hori taldearena berarena izan daiteke, edo gerta liteke talde subalterno bat baino gehiagoren batura izatea. Hori egiteko, ordea, bada beharrezkoa den zerbait, eta intelektualen garrantzia azpimarratzen du behin eta berriz. *Kartzelako koadernoak* lanean, atal bat osorik eskaintzen die intelektualari. Bi intelektual mota bereizten ditu Gramscik: intelektual tradizionalak eta intelektual organikoak. Intelektual tradizional profesionalak, klaseartekoak dira; nolabait esanda, iraganeko eta egungo klase-harremanetatik eratorriak. Intelektual organikoak, berriz, gizarte-klase jakin bati buruz hausnartu eta hura antolatzen dutenak. Azken batean, estatuarekin lortzen ditu bi intelektual motak. Lehenak estatuaren intelektualak izango lirateke, baina ez gizarte politikoaren eta gizarte zibilaren arteko orekaren bilatzaileak. Intelektual organikoek, berriz, gizarte zibilean jarduten dute nagusiki. Hortaz, intelektual

Jakin eta sentitu. Adimena eta borondatea. Euskal hiztuna, subalternoa? Hiztun minorizatuari hurbilpen bat Gramsci eta Spivaken ekarpenen argira

organikoak behar dituzte klase subalternoek, mendekotasun egoera horretatik aterako badira. Gizarte jakin bat ulertzeko, haren historia ezagutu behar da, eta ezagutze hori jakitea ez ezik, sentitzea ere bada. Horretarako proposatzen ditu intelektual organikoa: talde subalternoen historia jakingo dute, eta sentitu. Azken batean, adimenaren eta borondatearen batasuna ekarriko ditu horrek, eta praktikak eta teoriak bat egingo dute.

Intelektual organikoek, noski, taldearen homogeneousotasuna eta batasuna lortu beharko dituzte lehenik eta behin, hori gabe ezinezkoa izango baita subalterno izateari uztea. Eta subalterno izateari uzteko, jada aipatu dugun moduan, estatua osatu behar da. Alegia, homogeneousotasuna, batasuna, intelektualak, borroka, garaipena, estatua eta jarraitutasuna. Izan ere, garaipenak jarraitutasunik izango ez balu, nahiz eta hegemoniaren aurka agertu eta hari aurre egin, talde subalterno izaten jarraituko lukete, defentsa aktiboa baino ez litzatekeelako izango talde horien jarrera. Kontuan izan behar da, halaber, autonomia lortzeko borroka horrek hegemoniatik askatu eta beste hegemonia bat, beste gizarte-ordena bat sortzea dakarrela. Subalternoak hegemoniko izango dira orduan.

Gramsciren teorian, kokapen-gerra da hegemoniaren alde egitea. Izan ere, hegemonia bera kokapen bat da, estatuan edo gizarte-ordenan hartzen den lekua, hain zuzen ere. Horri aurre egiteko, hortaz, kokapen-gerra da helburua. Honela azaltzen du kontzeptu hori Gramscik *State and Civil Society* atalean:

“The war of position demands enormous sacrifices by infinite masses of people. So an unprecedented concentration of hegemony is necessary, and hence a more “interventionist” government, which will take the offensive more openly against the oppositionists and organise permanently the “impossibility” of internal disintegration—with controls of every kind, political, administrative, etc., reinforcement of the

Jakin eta sentitu. Adimena eta borondatea. Euskal hiztuna, subalternoa? Hiztun minorizatuari hurbilpen bat Gramsci eta Spivaken ekarpenen argira

hegemonic “positions” of the dominant group, etc. All this indicates that we have entered a culminating phase in the political-historical situation, since in politics the “war of position”, once won, is decisive definitively” (Gramsci, 1971).

Gramscik ongi bereizten ditu kokapen-gerra eta mugimenduen gerra. Azken hori aurrez aurreko talka da, eta ez du horren alde egiten. Kokapen-gerra prozesu historiko luzea izango da, eta gizarte osoak parte hartuko du bertan.

Indian hasi eta Latinoamerikaraino

1980ko hamarkadaren hasieran, Ikasketa Subalternoen Taldea sortu zuen Ranajit Guhak, Asiako historialariak, kritiko sozialak eta ikasleak elkartuta, eta haien ikuspuntuen oinarria Gramsciren *Kartzelako koadernoak* lana da. Hala ere, esan behar da haiengan bestelako garapena izango zuela horrek guztiak.

Honela definitu zituen Ranajit Guhak Ikasketa subalternoak: “a name for the general attribute of subordination in South Asian society whether this is expressed in terms of class, caste, age, gender and office or in any other way” (Guha, 1982).

Eta Dipesh Chakrabarty historialariak honela azaltzen du Ikasketa subalternoen taldearen helburua, Guha bera aipatuz: “El objetivo declarado de Estudios subalternos era producir análisis históricos en los que los grupos subalternos fueran vistos como sujetos de la historia. Como Guha lo dijo al presentar un volumen de Estudios subalternos: “De hecho nos oponemos a gran parte de la práctica académica en historiografía [...] por haber fallado en reconocer que el subalterno es el que hace su propio destino. Esta posición crítica radica en el mismo corazón de nuestro proyecto”” (Chakrabarty, 2010).

Jakin eta sentitu. Adimena eta borondatea. Euskal hiztuna, subalvernoa? Hiztun minorizatuari hurbilpen bat Gramsci eta Spivaken ekarpenen argira

Indiako taldeko kideek, hala, bidea aurkitu zuten Indiaren historia isilarazira lehen hurbilpen bat egiteko; nolabait esateko, galtzaileen historia kontatzeko. Oinarrian Gramsciren ideiak hartu bazituzten ere, alde handia dago nola ulertzen duen Gramscik subalvernitate eta nola definitzen duen terminoa. Guhak berak; izan ere, Guhak dio subalvernitate dela Indiako populazio guztiaren eta beraiek elite moduan deskribatzen dituzten guztien arteko alde demografikoa. Oso izango da garrantzitsua *elite* terminoa Asiako Ikasketa Subalvernoen Taldearentzat. Elitetzat hartzen dituzte, Indiari dagokionez, elite koloniala eta Indiako burgesia, eta elite horrek kontrolatu izan du herrialdearen historia. Gogoan izan behar da India luzaz izan zela kolonia bat, eta mendekotasun horrek askotariko ondorioak izan zituela gizarte haren osieran.

Berdin da zein heterogeneoa den talde subalvernoa, badu-eta beti hura definitzen duen eta aldatzen ez den ezaugarri bat: elitearen klaseak inposatutako menderakuntzarekiko erresistentzia. Eta erresistentzia hori kontatu egin behar da, ez da utzi behar besteek kontatu dezaten.

Hortaz, Ikasketa Subalvernoen Taldeko kideek kolonialismo garaiko historia idatzi nahi izan zuten, eta, horretarako, XIX. mendeko nekazarien matxinadetaraino jo zuten. Historia hori eraikitzeke, mende horretako nekazarien ezaugarriak agerrarazi nahi zituzten, ordura arte idatzi zen historiak kontatzen ez zituenak. Hemen argi ikusten da zer-nolako lotura dagoen Gramsciren ideiekin. Gramscik zioen subalvernoen historia zatikatua dela, estatua osatzen ez dutenez. Hemen ikusten da ildo beretik dabilela Guha, nekazarien historia zatikatu hori osatu nahi baitu, kontatu ez dena, eta ez da kontatu haien kokapena dela eta. Estatua osatzen duten taldeek estatu-osaera horretatik kanpo utzi dituzte, eta, nola edo hala, zatiketa hori eragin eta iraurarazi dute. Batasuna eta dagokien kokapena lortuta, historia hori kontatu ahal izango da, eta historia hori estatuaren historia izango da, kokapen-

Jakin eta sentitu. Adimena eta borondatea. Euskal hiztuna, subalfernoa? Hiztun minorizatuari hurbilpen bat Gramsci eta Spivaken ekarpenen argira

aldaketak hegemoniko izatera eramango baititu. Guhak dio subalfernoei historiaren subjektu izateko eskubidea kendu zaiela, subjektu izateko eskubideaz gain.

Orain arte, historia kontatu dutenak, historiaren kontakizunari balioa eman diotenak eliteak izan dira, eta elite horiek ez dituzte behar ziren moduan ulertu edo azaldu nahi izan nekazarien baldintzak eta matxinadak. Elite horiek estatuaren parte dira, eta, hala diren heinean, estatuaren historia kontatzen dute, ez talde subalfernoena. Guhak zioen India kolonia zen garaian bazela jendearen politikaren eremu autonomo bat, Gramscik eskatzen zuen hori, eta ez zela elitearen politikaren moduan antolatua. Eliteak zapaldu egiten zuen talde hori, errepresioa zerabilten haien aurka, eta haien matxinadaren aurka, eta autonomia bazuten arren, ez zuten indarrik kokapen horretatik ateratzeko. Eta kokapen horrek ez zien uzten beraien historia kontatzen. Eta horixe zen Ikasketa Subalfernoen Taldeak kontatu nahi izan duena: haien historia, ez elitearen ikuspegitik, baizik eta talde haren ikuspegitik. Ikasketa subalfernoek subjektuen historia kontatu nahi zuten, subjektuen historia ezagutzea, jakitea eta sentitzea ezinbestekoa baitzen garai hartako Indian zer gertatu zen ulertzeko. Ordura arte, eliteek kontatu zuten historia, bai ingelesek bai indiarrek, baina eliteek, eta historia horretatik kanpo geratu ziren gainerako taldeak, eta, batez ere, nekazarien taldeak, autonomia baliatuz matxinadak aurrera eraman zituzten haiek.

Ikasketa Subalfernoen Taldearen lan horietan guztietan bazen kontuan izateko beste gai bat ere. Nabarmentzen zuten eliteek historia hura kontatzen zutenean, kontatzen zutela Indiari onura baizik ez ziotela ekarri, eta, noski, taldea ez zegoen horrekin ados: hori ez zen historia osatua, ez zen benetako historia.

Chakrabartyk hau dio elite hari buruz:

“Yo sostengo –enfrentándome a críticos que han opinado lo contrario– que los estudios subalternos nunca podrán ser una mera reproducción en la India de la tradición inglesa que escribe la ‘historia-desde-abajo’. Los documentos oficiales del gobierno británico de la India –así como la tradición de historiografía imperial– siempre presentaron al gobierno colonial como si hubiera sido un beneficio para la India y su gente. Aplaudieron a los británicos por traer al subcontinente la unidad política, las instituciones modernas de educación, industrias modernas, un sentido de nacionalismo, el imperio de la ley, etc. Los historiadores indios de la década de 1960 –muchos de los cuales tenían títulos académicos británicos y la mayoría de los cuales pertenecían a una generación que creció a finales del gobierno británico– cuestionaban esa perspectiva. Alegaban que el colonialismo había tenido efectos negativos en el desarrollo económico y cultural. Indicaban que la modernidad y el deseo nacionalista de lograr la unidad política no habían sido regalos británicos a la India sino, más bien, fruto de los enfrentamientos entre los mismos indios.

Así, el nacionalismo y el colonialismo emergieron, como era de esperarse, como las dos áreas de investigación y debate más importantes que definen el campo de la historia moderna de la India de 1960 a 1970. En un extremo de este debate estaba Anil Seal, historiador de Cambridge, cuyo libro *Emergence of Indian Nationalism* describía el nacionalismo como el trabajo de una pequeña elite criada en las instituciones educativas que los británicos habían instaurado en la India. Esta elite, como lo describió Seal, a la vez “competía y colaboraba” con los británicos en su búsqueda de poder y privilegio” (Chakrabarty, 2010).

Indiako eliteak ez zirenen ekarpenak nabarmentzen dituzte, ordura arte ezkutuan geratu zirenenak, eta horiek azaleratzea, horiek argitara ekartzea zuten helburu. Matxinada ugari aztertu zituzten, eta horrek argi erakusten du hainbat elementu zituztela iraultza haiek, Gramscik aipatzen dituen horiek, hain zuzen: autonomia zuten haien arteko batasuna, homogeneousutasuna; menderatuta egotearen kontzientzia; horren aurrean altxatzeko nahia eta boterea, eta mugimendua gidatuko zuten intelektualak. Borroka egin zen, eta esan daiteke Gramscik kokapen-gerra deitzen duena izan zela. Baina borroka haiek ez zuten lortu garaipenik, ez zuten lortu jarraitutasunik. Ez zuten lortu Gramscik estatu deritzona osatzerik. Eta, hala, zatikatua geratu zen haien historia, menderatzaileek nahi zuten moduan kontatuta, betiere menderatzaileen ikuspegitik. Ez zuten beraien historia agerraraztea lortu.

Honela deskribatzen ditu Ikasketa Subalternoen Taldearen lan-ildoak
Guhak:

1. Abiapuntua da Indiaren historiografia elite kolonialak eta burges-nazionalak menderatu duela urte luzez.
2. Elite horrek behin eta berri esaten du beraien eraiki zutela Indiako nazioa, eta lorpen positibo guztiak haien ondorio direla.
3. Elitearen historiak estatu kolonialaren egitura, jarduerak, kontraesanak, borrokak, ideologia eta abar ezagutarazten ditu.
4. Elitearen historiak ezin du azaldu, inolaz ere, zer ekarpen egin dioten indiarrek, beren kabuz, Indiako nazionalismoaren sorrerari. Historia hori beti kolonizatzaileen mende egon da.
5. Elitearen historiak alboratu egiten du herriaren politika. Historia horrek isilarazi egin ditu subalternoen mugimenduak, eta, zehazki, nekazarien matxinadetatik eratorritako mugimenduak.

6. Askotariko jarrerak dituzten arren, eta mugimendua heterogeneoa den arren, talde subalternoek partekatu zuten ezaugarri bat izan zen menderatzen zituen elitearen aurreko erresistentzia. Klase subalternoen esplotazio-baldintzak nolakoak, halakoa zen haien erresistentzia.
7. Historia idazteko unean, ikasketa subalternoek ahalegina egin behar dute ongi bereizteko subalternoen politika eta elitearena, eta nabarmendu egin behar du Indiako burgesiak porrot egin zuela nazioaren izenean hitz egiterakoan. Horrek ez zu adierazten bi politika horiek elkarrengandik erabat banatuta daudenik; izan ere, izan dira elkarreraginak.
8. Ikasketa Subalternoen taldearen helburua da aztertzea burgesiak eta langile klaseak kolonialismoa behin betiko garaitzea lortzean egindako porrota.
9. Historia modernoaren elitismoa ekintza zapaltzailea da, eta eragin handia du ikasleengan, irakasleengan eta idazleengan.

Gayatri Spivakek aipatzen du subalternoaren kontzientzia elitearen katexiari atxikita dagoela, eta inoiz ezin dela erabat berreskuratu; alegia, eliteak gauza bati ematen dion errepresentazioak hartzen duela subalternoa ere, eta haren errepresentazioa jasotzen duela. Hortaz, eliteak eman dion errepresentazioari aurre egin eta desegiten ahalegintzea da Ikasketa Subalternoen Taldearen helburua.

India kolonialean eta poskolonialean gertatu zenaren antzerako zenbait gertatu zen Latinoamerikan ere. Munduaren alde horretan ere, kolonoek idatzi zuten historia, eta talde subalternoak alboratu egin ziren historiaren kontakizun horretatik. Kasu honetan ere, kolonoek eta kolonietako eliteek kontatu zuten historian zioten onura baizik ez ziela ekarri kolonizazioak talde horiei, eta horrek

Jakin eta sentitu. Adimena eta borondatea. Euskal hiztuna, subalternoa? Hiztun minorizatuari hurbilpen bat Gramsci eta Spivaken ekarpenen argira

ekarri zuen lurralde horretan ere indar hartzea Ikasketa kulturalak, poskolonialismoari lotuta. Esan daiteke oso antzerakoa dela bi mugimenduen abiapuntua, oinarritzat hartzen zuten esparrua ere oso antzekoa den heinean.

Kolonia horien historia kontatzen denean, alde baten historia soilik kontatzen da, eta ez da kontuan hartzen galtzaile izan ziren haiena. Ez da kontatzen talde subalterno bihurtu zituztenen historia. Poskolonialismoak koloniak izan ziren lurralde okupatu haien historia kontatzen du.

Latinoamerikan, kanpotik etorri eta hegemonia lortu zuen estatuaren historia kontatzen zen. Historia kontatzen zenean, gainera, ez zen kontatzen zer aurkitu zuten, eta nola, baizik eta nola utzi zuten. Eta nola utzi zuten horretan, kolonialismoaren onurak soilik nabarmentzen ziren. Gauza bertsua esan dugu Indiari buruz hitz egin dugunean ere.

Estatu haiek kolonizatzaileen abenturak kontatzen zituzten, eta hegemonia hura babestu eta estatuari bide berri bat egiteko aukera eman zien banako haien ekintzak, lorpenak... kontatzen zituzten. Historia hori kontatzen zen herritar eta banako aske eta berdinetan oinarrituta.

Eta horri aurre egingo zion historia kontatu nahi zuten Latinoamerikako eskola poskolonialek, eta ordura arte kontatu zen harekin zerikusi handirik ez zuen historia kontatzeari ekin zioten. Historia hartan nabarmendu zituzten estatu poskolonial haiek osatzeko izan ziren interesak; estatu haiek iraunarazteko egin zituzten izugarrikeriak; estatu poskolonial haiek osatu aurretik antolatu zituzten estatuak iraunarazteko ekintzak.

Ordura arteko errepresentazio guztiak, bada, estatuaren errepresentazioak izan ziren, eta ez zen aukerarik izan talde subalternoen errepresentazioaren berri emateko.

Jakin eta sentitu. Adimena eta borondatea. Euskal hiztuna, subalternoa? Hitzun minorizatuari hurbilpen bat Gramsci eta Spivaken ekarpenen argira

Hala ere, esan behar da Latinoamerikako poskolonialismoak gehiago jozuela aztertzeraz zer estatu-mota utzi zuten kolonialismoaren ondoren, eta zer zentzu zuen estatu-mota horrek haien historiaren harira. Izan ere, kolonialismoak kanpotik ekarri zuen estatu-mota bat, eta ez zuen kontuan izan zer estatu- eta/edo gizarte-mota zeuden aurretik. Alegia, ez zuen kontuan izan aurkitu zituzten antolamendu haien bide *naturala* izan zitekeen beraiek bultzatu zutena, eta zer ondorio izango zituen horrek, gerora, estatu haien etorkizunean.

Oraindik, bai Indian bai Latinoamerikan alderdi hauek lantzen jarraitzen dute, horren garrantziaren jakitun. Oraindik ez dute osatu talde subalternoen historia, oraindik ere kokapen horretatik ateratzerik lortu ez dutelako, baina horretan jarraitzen dute, eta ahalegin handiak eginda, ari dira emaitzak ikusten. Ari dira, pixkanaka-pixkanaka eta poliki-poliki bada ere, historia hori argitara ateratzen.

Mintza daiteke subalternoa?

Gayatri Chakravorty Spivaken *Can the subalter speak?* lanak eztabaida handia piztu zuen lehenengoz argitaratu zenean, eta asko eta askotariko moduetan aztertu da lana orduetik. Hasieratik beretik, ongi adierazten du bere asmoa:

“Algunos de los más radicales enfoques críticos nacidos en Occidente hoy en día provienen del deseo interesado de conservar al sujeto de Occidente así como está, o conservar Occidente como el único sujeto y tema. La teoría de los “efectos de sujeto/tema” pluralizados provoca la ilusión de socavar la soberanía del sujeto, mientras a menudo lo que hace es servir de cobertura para la supervivencia de ese mismo sujeto/tema de conocimiento” (Spivak, 1998).

Guhak ere defendatzen zituen bi ideia aipatzen ditu lehen hitz horiekin Spivakek. Lehenik eta behin, mendebaldeko ikuspegi kritikoez ari da,

Jakin eta sentitu. Adimena eta borondatea. Euskal hiztuna, subalternoa? Hiztun minorizatuari hurbilpen bat Gramsci eta Spivaken ekarpenen argira

mendebaldea kontserbatu nahi dutenez, eta, gero, subjektua aipatzen du. Mendebaldeak bereari eutsi nahi diola dio Spivakek, asaldu gabe, inolako aldaketarik gabe; hau da, bere hegemonia mantendu nahi du. Subjektua, berriz, subjektu murriztailea da, Mendebaldekoa soilik hartzen duelako kontuan. Mendebaldea, mendebaldekoekin. Mendebaldearen hegemonia, gainerako guztiak subalterno bihurtuz.

Spivakek, testu honetan, subalternoaren irudikapenaren teoria azaltzen du batetik, eta, bestetik, emakumearen subalternitatea aztertu. Subalternoaren irudikapenaren arazoa lantzeko, Foucault eta Deluzeren arteko elkarrizketa hartzen du abiapuntutzat: "Intellectuals and power: a conversation between Michel Foucault and Gilles Deleuze". Jarraian, Indiako bi kasu zehatz hartzen ditu, emakumeen subalternitateaz aritzeko: batetik, *sati* deritzon erritua, eta, bestetik, Bhuneswari gaztearen kasua.

Foucault eta Deluzeren arteko elkarrizketa 1972an argitaratu zen *L'Arc* aldizkarian. 1968ko maiatzeko gizarte-mugimenduari buruzkoa zen testua. Borroka politiko hartan, bat egin zuen langileen munduak eta unibertsitate-ikasleen munduak, eta boterearen inguruko eztabaida piztu zuen. Izan ere, mugimendu hark botere-harremanak agerrarazi zituen, eta botere-guneei eraso egin behar zitzaiela nabarmendu. Borroka haren subjektuek kontrakultura bat osatu zuten, baina gauza bat argi utzi zuten: boterearen kontrako borrokek boterea bera indartzen dutela, botereak ikasi egiten duelako zer hutsune dituen.

Foucault eta Deluzeren elkarrizketa aukeratzeko arrazoiak ematen ditu Spivakek:

"Insisten, en primer lugar, en que los entramados entre el poder/deseo/interés son tan heterogéneos que su reducción a una

narrativa coherente puede resultar anti-productiva y que lo que se necesitaría sería una crítica persistente. En segundo lugar, afirman que los intelectuales deben intentar arribar a la separación y el conocimiento del discurso del Otro de la sociedad. A pesar de esto, los dos interlocutores ignoran sistemáticamente la cuestión de la ideología y la manera en que ellos mismos están inmersos en la historia intelectual y económica” (Spivak, 1998).

Spivakek berak aipatzen du bi prozesu iraultzailez mintzo direla Foucault eta Deleuze: batetik, maoismoaz, eta, bestetik, langile-borrokaz. Azpimarratzen du horrekin guztiarekin kokapen bera ematen diotela subjektu zapaldu guztiei, haien heterogeneotasuna baztertzen duela, eta ez da ados ageri adierazpen horrekin. Izan ere, artikulua hasierako hitzetara itzuliz gero, argi ikusten da haiek Mendebaldeko subjektua babesteko eta indartzeko egiten duen ahalegina gaitzesten duela berriro.

Elkarrizketan diote, gainera, iraultzaile horiek ez dutela errepresentatuko dituen inor behar. Izan ere, zapalduak hitz egiteko baldintzak lortu behar dira, eta hori lortuta, ez dute haien ordeztu hitz egingo duen inor behar. Horri dagokionez, ikusi dugu jada Gramsciren ustez intelektualak behar dituztela talde subalternoek kokapen horretatik aterako badira, jakingo dutenak, eta Guhak eliteak aipatzen dituela horren ordeztu.

Spivakek bi adiera aitortzen dizkio *errepresentazio* hitzari: alde batetik, “bestearen ordeztu hitz egitea”, eta beste alde batetik, terminoa artearen eta filosofiaren munduan erabiltzen den bezala: gertatua berriro aurkeztea, berriro errepresentatzea. Eta hark dio bi termino horietatik hitz egiten, jarduten eta jakiten dutela subjektu zapalduak. Ordezkapenetik (beste inork azalduko du, beste inoren araua beteko du) edo des-errepresentaziotik (beste inork jantziko du bestelako esanahiz) 'hitz egiten dutela' edo 'hitz egin arazten zaiela', ez

Jakin eta sentitu. Adimena eta borondatea. Euskal hiztuna, subalternoa? Hitzun minorizatuari hurbilpen bat Gramsci eta Spivaken ekarpenen argira

beretik, ez berez. Bi bide horietatik at ez dago ezer. Ez dago ahots propiorik izateko aukerarik subalterno diren heinean. Eta horregatik ezin dute hitz egin subjektu subalternoek. Subjektu subalternoek ez dute hitz egiteko aukerarik, eta, beraz, eliteak behar dituzte entzunarazteko.

Indiako eliteak historia bat kontatzen du, garaileena. Hala ere, bada beste historiari ere lurralde horretan, hain zuzen ere, subalternoen ikuspuntua kontua hartzen duena. Subalternoen historia kontatzen denean elitearen historia dekonstruitzen dela dio Spivakek. Subalternoa da elitekoa ez dena, eta beraz, eliteak kontatzen duen historia horretan lekurik ez duena.

Hau guztia ulertzeko, emakumearen subalternitatea aztertzen du Spivakek, eta, hala, Indiako bi kasu berezi jasotzen ditu lan honetan. Atalari hasiera emateko, bi galdera egiten ditu:

“¿Puede hablar el sujeto subalterno? ¿Qué es lo que los círculos de élite deben hacer para velar por la continuación de la construcción de un discurso subalterno?” (Spivak, 1998).

Spivakek dio emakume subalternoak errepresentatu duen subjektu mutua aztertzeko, sistematikoki desikasten direla emakumeei esleitutako pribilegioak, eta emakume subalternoaren kasuan inoiz eztabaidatu ez den mututasunaz eztabaidatu. Bere kasuan dio, desikasita, ohartu zela mendebaldeko feminismoaren proiektu nagusia dela gizarte-mugikortasuna gero eta handiagoa den egoeretan gizonen eta emakumeen eskubide indibidualak borrokatzea, eta nabarmentzen du halako lanetan ongi adierazi behar dela zer kokapen duen aztertzen den subjektu horrek. Horiek horrela, berak emakumearen kontzientziaren arazoa aztertzen du, banako subalternoa den heinean.

Jakin eta sentitu. Adimena eta borondatea. Euskal hiztuna, subalternoa? Hiztun minorizatuari hurbilpen bat Gramsci eta Spivaken ekarpenen argira

Horretarako, proposamen bat osatzen du, azal iluneko gizonen eta azal zuriko gizonen arteko harremana aztertuta, eta, noski, batzuetan bi taldeetako emakumeak ere horren parte dira. Proposamena azaltzeko, *sati* errituaz mintzo da. Sati errituan, senarra hiltzen denean, alargunak bere buruari su ematen dio haren hilobiaren gainean. Erritu hori britainiarrek abolitu zuten, eta gertaera haren interpretazioa da hemen arazo. Izan ere, honela ulertu zen gertaera hura: gizon zuriek babestu egiten dituzte azal iluneko emakumeak azal iluneko gizonengandik. Horri nolabait aurre egiteko, gizon hinduek zioten emakume haiek, egiaz, hil egin nahi zutela. Haien desira bat zela hiltzea. Bi adierazpen horiek, bakoitzak bere eremuan, onarpena lortu zuten, eta Spivakek dio gertaera horretan ez dela entzuten emakumearen kontzientziaren ahotsa.

Satiaren erritua lege bihurtu zen zenbait aldi eta eremutan Indian, eta kontuan izan behar da alargunen batek atzera egin nahi bazuen, zigor bat jasoko zuela. Beraz, esan daiteke emakumeek ez zutela aukeratzeko eskubiderik. Arau bat zen, estatuaren boterearen adarretako bat, eta emakumeek bete egin behar zuten. Indiako eliteak, berriz, goraipatu egiten zuten biktima izateko erabaki hura. Nolabait esanda, emakume alargunak senarraren gorpuaren ondoan hiltzea emakume-gorputzetik askatzeko modutzat ulertzen zen, eta emakume-gorputza izatea, zorigaiztoko gertaeratzat. Hortaz, emakumea zorigaiztotik askatuko zuen ekintza bat zen sati erritua.

Beste kasu bat ere aipatzen du Spivakek, dagoeneko esan dugun moduan: Bhuaneswari gaztearen kasua. Hamasei edo hamazazpi urteko gaztea zen Bhuaneswari Bhaduri, eta bere buruaz beste egin zuen aitaren etxean. Bere buruaz beste egin zuenean, hilekoarekin zegoen, eta, beraz, argi zegoen ekintza hura ez zuela egin nahi gabeko haurdunaldi baten eraginez. Hamarkada baten ondoren jakin zen Bhuaneswari Indiaren independentziaren aldeko borroka armatuko taldeetako kide zela. Ekintza politiko bat egiteko agindua

Jakin eta sentitu. Adimena eta borondatea. Euskal hiztuna, subalternoa? Hitzun minorizatuari hurbilpen bat Gramsci eta Spivaken ekarpenen argira

eman zion taldeak neskatoari, baina ez zen hori egiteko gai izan. Zer ardura zuen jakitun, bere buruaz beste egitea erabaki zuen, eta ongi antolatu zuen ekintza hura, bestelako interpretaziorik izan ez zezan.

Indiako emakume askok, nahi gabe haurdun geratu ostean, bere buruaz beste egiten zuten, eta ongi zekien Bhuaneswarik zer zen hori bai beretzat bai familiarentzat. Hori dela eta, hilekoa izan arte itxaron zuen bere buruaz beste egiteko. Hala, garai hartako gizartea nolakoa zen kontuan hartuta, ekintza hark zuen esanahia ezabatu nahi izan zuen hilekoaren zain egonda, bere gorputzaren bidez mezu bat emateko: ez zuen bere buruaz beste egin haurdun zegoelako, ez zuen bere buruaz beste egin emakume ez-purua zelako. Hala ere, mezu hura ez zen ez iritsi ez zabaldu: hilekoa zuenez, ez zegoen haurdun, eta, beraz, zoratuta zegoen halako gauza bat egiteko. Mezua ez zen iritsi, ez zen ulertu; Bhuaneswari gaztearen ahalegin hark, gorpu hark ez zuen haren errepresentazioaren berri eman, ez zuen haren izenean hitz egin. Mezu hari bestelako errepresentazioa eman zioten eliteek.

Spivakek Marxengana jotzen du azaltzeko klasea ez dela subjektu batu bat, talde bat, interes eta desira berak dituen, Foucaultek eta Deleuzek esaten dutenaz bestela, eta jarraian aipatzen du ezin dutela beraien burua errepresentatu, eta errepresentatuko dituen behar dutela. Berriro ere, Gramsciren ideien oihartzuna datorkigu. Gramscik zioen talde subalternoek intelektualak behar dituztela egoera iraultzeko, beraien mezua zabaltzeko. Kasu honetan, Bhuaneswari gaztearen ekintza argia izan bazen ere, eta argia izateko itxaron egin behar izan zuen arren, ez zen agerrarazi zer zioen gorpu hark. Gorpu hark ezin izan zuen hitz egin.

Indiako sati errituaren eta Bhuaneswari gaztearen azterketa egiten duenean, garbi uzten du Spivakek emakume horiek mutuak direla. Lehenek ez dute askatasunez aukeratzeko eskubiderik; izan ere, estatuak dioenaren mende

daude, eta estatu horren legea bete behar dute. Emakumeek ez dute hitz egiterik, agindua bete besterik ez dezakete egin. Bigarren kasuan, emakumeak aukeraketa bat egiten du askatasunez, baina, zoritxarrez, ezkutatu egiten da aukeraketa horrek esanahia, manipulatu, eta, beraz, emakumearen mezua isilarazi egiten da. Emakumea mututu egiten da, emakumea eta haren gorpuaren errepresentazioa.

Hori guztia ikusita, Spivakek egiten duen galdera ekar daiteke berriro hizpidera: hitz egin dezake subalternoak? Ikusten da emakumeari ematen zaion errepresentazioak ez direla emakumeen berezkoak, baizik eta estatu baten eraikuntzak. Eraikuntza horrek, gainera, beste eraikuntza ugari ere badakartza, askotan lege bihurtuak, eta, bestela, bete beharreko ohitura. Ezarrita dagoen horri jarraitzea ez da askatasunez erabakitzea, ez da eskubidea izatea, eta, beraz, menderatuta dago, subalternoa da. Alargun subalterno horiek ez dute beste aukerarik, ez zaie beste irtenbiderik uzten. Atzera egitea izan daiteke hitz egiteko modu bat, baina, orduan ere, mututu egiten dituzte, ez dute mezu hori jasotzen. Bhuwaneswariri ere ez zaio hitz egiteko aukerarik ematen.

Esan behar da Spivakek bere dokumentuari eman zion izenburuak ere eztabaida piztu zuela. Galdetzen zuen hitz egin dezakeen subalternoak, eta askok zioten hitz egin zezakeela. Orduan Spivakek azaldu zuen izenburu horrek atzean zuena zela baietz, hitz egin zezaketela subalternoek, baina haien hitzak ez zirela entzuten, ez zutela egiten egin beharreko bidea, ez zirela izan behar zutenaren errepresentazio. Mututu egiten dira emakume horien mezuak, mututu haien ekintzak, eta horrek ez die inolako aukerarik ematen beraien mezuak zabaltzeko. Baina ez du emakumez soilik hitz egiten, kokapen berean jartzen baititu subjektu kolonialak. Kolonia horretako eliteek hitz egin dezakete, eta hitz egiten dute, eta haien mezuak zabaldu egiten dira, eta arau bihurtu. Garaileek beraien mezua ematen dute, eta, garaituek, ezin. Horren aurrean, ezin

Jakin eta sentitu. Adimena eta borondatea. Euskal hiztuna, subalfernoa? Hiztun minorizatuari hurbilpen bat Gramsci eta Spivaken ekarpenen argira

du ezer egin subjektu kolonialak, subjektu subalfernoak, eta ezin du mendekotasun-egoera hori itzuri.

Beraz, galdera horren atzean dagoena da talde hegemonikoek isilarazi egiten dituztela subalfernoen mezuak, eta hori hitz egiteko aukerarik ez izatearen parekoa dela.

Ezkututik, argitara

Mugimendu feministaren sorreraz hitz egitean, Ilustrazioraino jo behar dugu ezinbestean, aro horretakoak baitira mugimendu feminista modernoaren lehen urratsak. Horrek ez du adierazten ordura arte ez zenik izan halako mugimendurik, baizik eta ordura arte ez zuela halako batasunik izan.

Ilustrazioaren hitz gakoetako bat arrazoia da. Arrazoia da egia ezagutzeko bitartekoa, eta, beraz, autoritateari itzuri egiteko moduetako bat. Ildo horri jarraikiz, Ilustrazioaren ideia nagusietako bat zen gizaki (edo gizon) guztiak askeak eta berdinak direla jaiotzen direnean, eta, beraz, eskubide berak dituztela guztiek.

Ilustrazioko ideia horiei jarraikiz, *Déclaration des droits de l'homme et du citoyen* adierazpena onartu zuen Batzorde Nazional Konstituziogileak 1987ko abuztuaren 26an. Frantziako Iraultzak gizarte-ordena berria zekarren, eta haren oinarriak finkatu behar ziren. Horregatik onartu zuten adierazpen hura, gizarte berriaren oinarriak finkatzeko. Gainera, helburua ez zen Frantziara soilik mugatzea, eskubide haiek *gizon* guztiei zegozkien heinean, eskubide unibertsal bihurtzea baitzuen xede. Baina askatasunetan oinarritutako dokumentu hark ez zituen aipatu ere egiten emakumeak, eta autore liberal batzuek ere emakumea zokoratzan jarraitzen zuten. Hala ere, garai hartako ideiek mugimendua eragin zuten emakumeen artean ere, emakumeen egoera zela-eta, eta *Emakumearen eta Emakumezko Herritarraren Eskubideen Adierazpena* idatzi zuen Olympe de

Jakin eta sentitu. Adimena eta borondatea. Euskal hiztuna, subalternoa? Hitzun minorizatuari hurbilpen bat Gramsci eta Spivaken ekarpenen argira

Gougesek 1791ean. Adierazpen horrek ez zuen, ordea, Batzorde Nazional Konstituziogilearen onarpenik izan, ez baitzeuden prest gizonei emandako eskubide berak emateko emakumeei; hau da, ez baitzituzten gizonen parekotzat hartzen emakumeak.

Olympe de Gouges Frantziako Iraultzan parte hartu zuen feminista bat zen, eta mugimendu haren oinarriari jarraikiz, emakumeen eskubideak aldarrikatu zituen, gizonen eta emakumeen eskubide berak izan zituzten.

“Emakumezkoen boto eskubidea, lan publikoak egiteko aukera, politikan sartzeko eskubidea, jabeagoak izatekoa eta kontrolatzeko eta gizonen hezkuntza berbera jasotzea aldarrikatu zuen. Baina ez zituen ideia feministak soilik joratu. Jendarte erreformak egiteko programa zabala idatzi zuen. Haurren eskubideen babesean aitzindari izan zen, baita dibortzioaren aldarrikapenean ere. Ezkontza sistema aldatzeko proposamena ere egin zuen: urteko kontratu berriztagarria izan behar zuen haren ustez. Langabetuentzako tailerrak eta eskaleentzako etxeak ere bultzatu zituen” (Irazustabarrena, 2012).

Emakumeek talde zapaldu izatearen kontzientzia hartu zuten garai hartan, eta zapalkuntza horretatik askatzeko mugimenduari ekin zioten. Gizonei egiten zieten galde zuzenean, eta horren adierazgarri dira Olympe de Gougesek moldatu zuen adierazpenari gehitu zizkion lehen hitzak:

“Gizon, bidezko izateko gai ote zara? Emakume bat da galdera egiten dizuna; ez diozu, gutxienez, eskubide hau ukatuko. Esaidazu, nork eman dizu nire sexua zapaltzeko botere subiranoa? Zure indarrak? Zure trebeziak? Ikus ezazu Sortzailea bere jakiturian; ibil zaitez naturaren handitasunean gaindi, itxuraz haren antza izan nahi baituzu, eta emaidazu, ausartzen bazara, botere tiraniko horrek adibiderik. Jo

animaliengana, kontsultatu elementuak, aztertu landaredia, emaziozu begira da, azkenik, materia organizatuaren eraldaketa orori; eta eman amore ebidentziaren aurrean bideak eskaintzen dizkizudanean; bila ezazu, aztertu eta bereizi itzazu, ahal baduzu, sexuak naturaren administrazioan. Alde orotan aurkituko dituzu nahasian, alde orotan elkarlanean dihardute multzo armonioso gisa, maisu lan hilezkor honetan” (De Gouges, 1791).

Baina ideia haiek guztiak ez ziren ongi etorriak boterearentzat, eta botereak heriotzara kondenatu zuen Olympe de Gouges 1793an, eta biharamunean gillotinatu. Boterearen aurka altxatzen ziren emakume zapalduen bi bide baino ez zitzaizkien utzi: gillotina ala erbestea. Hala ere, 1968ko maiatzeko gertaerez esan dugun gauza bera errepikatu dezakegu hemen, egoera alderantzikatuta: errepresio hark ikasteko aukera eman zien emakumeen mugimenduen, eta zapaldu ordez, indartu egin zituzten.

Esan bezala, mugimendu feministaren hastapenak izan ziren hauek. Eta oinarri horietan argi ikusten dira hainbat ideia, hala nola boterea, mendekotasuna eta zapalkuntza. Garaiko sistema politikoaren eta sexuen arteko botere-harremanen arteko loturak nabarmendu ziren, jada, garai hartan. Eta nabarmen geratu zen boterearen intelektualak ez zeudela amore emateko prest. Garaiko filosofoen lan-arloetako bat emakumearen bazterketa iraunarazteko argudioak ematea izan zen, sexuen arteko rolek bere horretan jarrai zezaten. Botere hegemonikoa ez zegoen prest subalternoei leku egiteko.

Mugimendu feministaren beste une garrantzitsu bat emakumeen boto-eskubidearen aldarrikapena izan zen. XIX. mendearen amaiera aldean, asko aldatu zen gizartea herrialde garatuenetan, Bigarren Industri Iraultza deritzon garaian. Garai horrek aldaketa politikoak, ekonomikoak eta sozialak ekarri zituen, eta, noski, asko aldatu zen emakumeak lehenagoko gizartean izan zuen

rola. Gizarte kapitalista hartan, askatasun batzuk eskuratu zituen emakumeek, eta beste batzuk aldarrikatzen hasi ziren. Horietako bat zen botoa emateko eskubidea, eta aldarrikapen horrek batasuna lortu zuen, ez baitzen eremu batera mugatu. Herrialde batean eta bestean zabaldu zen sufragisten mugimendua, haien aldarrikapena, eta, beraz, haien borroka.

Esaten da Ingalaterra izan zela emakumeen boto-eskubidea eskatzen lehen herrialdea, eta mugimendu hark indar handia hartu zuen. Mugimendu haren sorrerako irudi garrantzitsuenetakoa bat Mary Wollstonecraft da, eta arlo horretako haren lanik esanguratsuenetakoa, *Vindication of the Rights of Women* (1792). Wollstonecraftek zioen emakumea, izatez, ez dela gizonaren mendekoa, eta, beraz, hori gizarte-eraikuntza bat baino ez dela. Hezkuntzan jartzen zuen arreta-gune nagusia, gainera, esaten baitzuen emakumeak gizonaren mendeko ikustea izango zela emakumeek hezkuntza gutxiago jaso izanaren ondorio. Horretaz gain, kontuan izan behar da hezkuntzan ikusten zuela emakumei eta gizonari ematen zitzaien tratu-ezberdintasunaren oinarria, garai hartan emakumei ematen zitzaien hezkuntzaren helburua baitzen emakume haiek prestatzea etorkizunean izango zuten emazte-rola ongi bete zezaten, eta ez besterik. Hezkuntzak gizakiari ikaskuntza eman behar ziola zioen, eta hori hala ez izatearen erantzukizuna estatuari egozten zion. Estatuak hori aldatzeko bidea bilatu behar zuen, eta, horrek amaitu egin behar zuen emakumearen menderakuntzarekin; horrenbeste, bizitza politikoan parte hartzeko aukera eman behar zien hezkuntzak emakumei.

Horiek horrela, bai gizonak bai emakumeak izaki arrazionaltzat hartzea aldarrikatzen zuen Wollstonecraftek, eta, horretarako gizartea arrazoiari oinarritu behar zela aldarrikatzen zuen, ilustrazioko ideia nagusiari jarraikiz. Esan daiteke, bada, Ilustrazioaren ideiak erabiltzen zituela Wollstonecraftek

Jakin eta sentitu. Adimena eta borondatea. Euskal hiztuna, subalternoa? Hiztun minorizatuari hurbilpen bat Gramsci eta Spivaken ekarpenen argira

emakumeak subalternitateak ematen dion kokapen horretatik askatu ahal izateko, eta, horrenbestez, kokapen hegemonikoa izateko.

“Deeds, not words”. Lelo horixe erabili zuen Emmeline Pankhurstek hitzaren bidezko borrokak eman behar zituen emaitzak ematen ez zituela ikusita. Berrogei urte luzez, prozedura demokratikoak erabili zituzten beraien helburuak betetzeko, baina hitz egin ezin zutela ikusita, beraien hitzek beraien mezua zabaltzen ez zutela ikusita, ekintzetara jotzeko ordua zela erabaki zuten.

Emmeline Pankhurst Ingalaterran emakumeen boto-eskubidearen aldeko mugimenduaren aldeko izen garrantzitsuenetakoa bat da. Haren familian nabarmenak ziren eskubide zibilen defentsa, esklabotasunaren abolizioa eta gizon eta emakumeen arteko berdintasuna. Amak hamalau urte zituela eraman zuen emakumeen boto-eskubidearen aldeko mitin batera, eta esaten du orduan sustraitu zela bere sufragista-jarrera. Mugimenduan buru-belarri sartu zen, baina hitzek zegokien biderik egiten ez zuela ikusita, ekintzetara igarotzeko ordua zela ikusi zuen.

1903an, ekintza zuzenera jo zuten sufragistek, eta borrokari irmo eutsi zioten. Estatuak haiek menderatzen jarraitu nahi zuen, kokapen-aldaketarik egon ez zedin, gizarte-ordena hura iraunarazteko, baina emakumeak ez zeuden geldirik egoteko. Aurre egin zieten, bai kalean bai kartzelan, eta haien ekintzek hitz egitea lortu zuten pixkanaka-pixkanaka. 1908an, 500.00 sufragista inguru elkartu ziren Hyde Parken, eta, horren ondoren, izugarria izan zen polizia-indarkeria. 1910ean eta 1912an, Kontziliazio Legea onartzeko ahaleginak egin ziren. Lege hartan emakumeei botoa ematen uztea proposatzen zen, baina ez zen lortu onartzerik ez kasu batean ez bestean.

1914an, Lehen Mundu Gerra lehertu zen, eta borroka hura pixka bat alboratu zen. Izan ere, gerran laguntzea erabaki zuten feminista haiek, baina

Jakin eta sentitu. Adimena eta borondatea. Euskal hiztuna, subalternoa? Hitzun minorizatuari hurbilpen bat Gramsci eta Spivaken ekarpenen argira

baldintza bat jarrita: gobernuak eta/edo estatuak askatu egin behar zituen emakumeen boto-eskubidea defendatzeagatik kartzelan zeuden emakume guzti-guztiak. Lehen Mundu Gerra amaitzean, berriro ekin zioten eskubide haren aldarrikapenari, jada bestelakoa zen gizartean, eta urte horretan bertan Parlamentuak onartu egin zuen 30 urte baino gehiago zituzten emakumeek botoa ematea, baita Parlamentuko kide izateko aukera ere.

Azkenean, 1928an onartu zuen Ingalaterrak emakume guztien boto-eskubidea.

Ameriketako Estatu Batuetan, esklabotzaren aurkako borrokan parte hartu zuten emakumeek. Esklaboen, beltzen subalternitatea aldarrikatu zuten mugimendu haiek, eta, noski, kokapen hori gainditzeko beharra. Emakumeek modu antolatuan parte hartu zuten mugimendu haietan, eta horrek ekarri zuen gerora emakumeen eskubideei buruzko eztabaida. Gainera, lehenagoko mugimendutik ikasi zuten elkartu egin behar zirela, batu, ordena hura aldatu nahi bazuten. Hala, emakumeen eskubideei buruzko lehen batzarra egin zen 1848an, Lucretia Mott eta Elizabeth Cady Stantonek antolatuta, eta, ondoren, *Seneca Falls-eko Adierazpena* argitaratu zuten. Adierazpen hura *Ameriketako Estatu Batuen Independentziaren Adierazpenean* oinarritu zen, eta helburu zuen emakumeei ukatzen zitzaizkien eskubideak nabarmentzea, batez ere, eskubide politikoak, hala nola botoa emateko eskubidea, hauteskondeetara aurkeztekoa, kargu publikoak betetzekoa, erakunde politikoetako kide egitea eta bilera politikoetara joatea. Argi ikusten da horrekin emakumeek ez zutela eskubide politikorik garai hartan. Eskubide horiek guztiak aldarrikatzen zituzten; azken batean, kontzientzia eta iritzia izateko eskubidea aldarrikatzen zituzten.

Hona hemen adierazpen horren pasarte bat:

“We hold these truths to be self-evident: that all men and women are created equal; that they are endowed by their Creator with certain inalienable rights; that among these are life, liberty, and the pursuit of happiness; that to secure these rights governments are instituted, deriving their just powers from the consent of the governed. Whenever any form of government becomes destructive of these ends, it is the right of those who suffer from it to refuse allegiance to it, and to insist upon the institution of a new government, laying its foundation on such principles, and organizing its powers in such form, as to them shall seem most likely to effect their safety and happiness. [...] The history of mankind is a history of repeated injuries and usurpations on the part of man toward woman, having in direct object the establishment of an absolute tyranny over her” (*The Declaration of Sentiments*, 1848).

Adierazpenak hamabi erabaki jasotzen ditu, eta hamaika aho batez onartu ziren. Bakarra ez zen aho batez onartu, baizik eta gehiengo txiki baten aldeko botoaren bidez, eta hamabigarren hori, hain zuzen ere, emakumeek botoa emateko eskubideari buruzkoa da, bitxia bada ere. Izan ere, emakumeek botoa emateko eskubidearen aldeko borrokaren pizgarri izan zen adierazpena.

Mugimendu hura klaseartekoa izan zen, eta loturak izan zituen beste borroka-eremu batzuekin ere. Azkenean, AEBko estatuek pixkanaka-pixkanaka onartu zuten emakumeen boto-eskubidea XIX. mende amaieraren eta XX. mende hasieraren artean, kasu askotan, ordea, emakume zurientzat soilik. AEBko emakume guztiek botoa izateko eskubidea ez zen gauzatu 1965era arte.

Emakumeei gizonen pareko boto-eskubidea onartzen lehen herrialdea Zeelanda Berria izan zen, 1893an. Kate Sheppard izan zen borroka haren aurpegi ezagunena. Sheppardak aldarrikatzen zuen gizakiaren kontrakoa dela bereizkuntza oro, eta, horrenbestez, gainditu egin behar zela. Borroka beste herrialde askotan baino lasaiagoa izan zen Zeelanda Berria, eta hirugarrenez

aurkeztu zenean onartu zuen Parlamentuak emakumeen boto-eskubidea. Kate Sheppard kide zuen mugimenduak Zeelanda Berriko emakumeek botoa emateko hamar arrazoi aurkeztu zizkieten Parlamentuko kideei. Honela dio testuak:

“Ten Reasons Why the Women of N.Z. Should Vote

1. Because a democratic government like that of New Zealand already admits the great principle that every adult person, not convicted of crime, nor suspected of lunacy, has an inherent right to a voice in the construction of laws which all must obey.
2. Because it has not yet been proved that the intelligence of women is only equal to that of children, nor that their social status is on a par with that of lunatics or convicts.
3. Because women are affected by the prosperity of the Colony, are concerned in the preservation of its liberty and free institutions, and suffer equally with men from all national errors and mistakes.
4. Because women are less accessible than men to most of the debasing influences now brought to bear upon elections, and by doubling the number of electors to be dealt with, women would make bribery and corruption less effective, as well as more difficult.
5. Because in the quietude of home women are less liable than men to be swayed by mere party feeling, and are inclined to attach great value to uprightness and rectitude of life in a candidate.
6. Because the presence of women at the polling-booth would have a refining and purifying effect.

7. Because the votes of women would add weight and power to the more settled and responsible communities.

8. Because women are endowed with a more constant solicitude for the welfare of the rising generations, thus giving them a more far-reaching concern for something beyond the present moment.

9. Because the admitted physical weakness of women disposes them to exercise more habitual caution, and to feel a deeper interest in the constant preservation of peace, law, and order, and especially in the supremacy of right over might.

10. Because women naturally view each question from a somewhat different standpoint to men, so that whilst their interests, aims, and objects would be very generally the same, they would often see what men had overlooked, and thus add a new security against any partial or one-sided legislation”.

Askotariko arrazoiak ematen dituzte emakumeek Zeelanda Berririko gobernuak emakumeei botoa emateko eskubidea onartu diezaien. Arrazoi horietan aipatzen da Zeelanda Berriko gobernu demokratikoak onartu egiten duela guztiek bete behar dituzten legeak egiteko garaian hitz egiteko eskubidea dutela, berdintasunaren eske moduan. Aipatzen dute emakumeen adimena ez dela haurren adimenaren parekoa, eta horrek erakusten du zer tratatu ematen zitzaien emakumeei. Nabarmentzen dute koloniaren aurrerabideak eragin egiten duela emakumeen bizitzan, eta, beraz, haren askatasuna eta erakundeena babesteko egitekoa dutela, baita gizonekin batera, eta modu berean, egiten diren akats guztiengatik berdinean sufritzekoa ere. Gizonen eroskeria eta ustelkeriak eraginkortasun txikiagoa izan dezan egin dezaketela diote. Nabarmentzen dute etxe barruan emakumeari gizonari baino gutxiago

Jakin eta sentitu. Adimena eta borondatea. Euskal hiztuna, subalternoa? Hitzun minorizatuari hurbilpen bat Gramsci eta Spivaken ekarpenen argira

eragiten diola alderdiak. Gainera, emakumeek bozka eskubidea izateak balio handiagoa emango liekeela hauteskunderi, indartu egingo bailuke haien garrantzia komunitateetan. Emakumeak orainaz ez ezik, etorkizunaz ere arduratzen direla. Adierazten dute emakumearen ahultasun fisikoa dela eta, emakumeak arreta handiagoa jartzen duela bakea, legea eta ordena errespetatu daitezkeen. Eta azkenik diote emakumeek beraien ikuspegia erantsiko lieketela gizonen ikuspegiari, eta horrek bermatuko lukeela legedia zatikatua eta aldebakarrekoa ez izatea. Bistan denez, emakumearen rola argazkia islatzen da hamar arrazoi jasotzen dituen adierazpen honetan.

Esan bezala, Zeelanda Berria izan zen emakumei boto-eskubidea onartu zien lehen estatua.

Boto-eskubidea lortzeak askotariko esanahiak zituen herrialde horietan eta garai hartan. Emakumeari ukatu egiten zitzaizkion gizonen eskubideak, eta, beraz, emakumeen bizitza gizonen eraikitako estatuaren mende zegoen. Emakumeek eskolan ikasi behar zutena zen nola izan emazte eta ama ona. Bi horiek ziren gizarteak emakumeari ematen zizkion rola, eta, beraz, gizonen agintepean bizi ziren. Boto-eskubidea eskatzeak gizarte politikoan parte hartzeko eskubidea aldarrikatzea zekarren, eta gizartearen antolaketan parte hartzeko eskubidea aldarrikatzen zen heinean, gizarte haren antolamenduan parte hartzeko eskubidea. Gizartean parte hartu ahal izateak, gainera, gizarte-ordena hura aldatzeko aukera emango zien.

Mugimendu sufragistan parte hartu zuten emakumeek ulertzen zuten gizartearen parte izan behar zutela, eta ezin zutela jarraitu ordura arte bezala: gizartetik kanporatuta eta gizonen agintearen mende. Emakumeek horren kontzientzia hartu zuten, eta subalterno izateari uzteko bideari ekin zioten, kokapen-gerraren bidez. Herrialde ugariara zabaldu zen mugimendu hura, eta

Jakin eta sentitu. Adimena eta borondatea. Euskal hiztuna, subalternoa? Hiztun minorizatuari hurbilpen bat Gramsci eta Spivaken ekarpenen argira

askotan elikatu zen beste askapen-mugimendu batzuekin, bai jada lortu zen askatasuna oinarri hartuz, bai kokapen-gerran zihardutenekin aberastuz.

Mugimendu horietan guztietan, elementu asko partekatu ziren, bakoitzak bere herrialdera ekarrita. Esklabotasunaren aurkako mugimenduak indarra eman zien sufragistei zenbait herrialdetan; Ilustrazioaren ideiak garrantzitsuak izan ziren guztietan; hezkuntzaren garrantzia aipatzen zuten leku guztietan; langile-borrokarekin bateratu ere egin zen zenbaitetan. Guzti-guztien helburua subalterno izateari uztea zen, eta kokapen hegemoniko bat lortzea kokapen-gerra baten ostean. Esan daiteke garrantzitsuak izan zirela borroka haien lorpenak, baina ez zuten lortu urte luzez eraiki eta indartutako ideia guztiak eraisterik, eta arlo batzuetan emakumeak subalterno izateari utzi dion arren, ez da gauza bera gertatu guztietan. Beraz, kokapen-gerra horrek aurrera darraio garai hartatik.

Mugimendu feministaren beste aro garrantzitsu bat 1960eko hamarkada da; alegia, gerraosteko garaia. Emakumeak ez ziren definitzen izanagatik, baizik eta gizartean betetzen zituzten funtzioengatik, eta, horri aurre egin eta autonomo izateko, subalterno izateari uzteko, lan-munduan txertatu behar ziren; hau da, gizarte-bizitzan parte hartu behar zuten, eta, horretarako, ibilbide profesional bat izan. Feminismo liberalak zioen emakumeen egoera desberdintasun-egoera zela, eta, beraz, onartzen zitzaizkien eskubideak gauzatu eta eskubide berriak eskuratuta, amesten zuten berdintasuna lortuko zutela. Baina beste mugimendu feminista batek beste bide bati heldu zion: feminismo liberalaren aurka jarri zen, eta haien irakurketa zen ordena patriarkalak bere horretan jarraitzen zuela, eta, horrenbestez, balioetan eragin behar zela, haiek aldatuta, gizartea aldatzeko. Diferentziaren feminismo horrek autokontzientziara jo zuen, nork bere esperientzia aztertuta, hori marko politikora eraman eta egoera hori aldatzeko. Aldi horretan, bi joera nagusi izan

Jakin eta sentitu. Adimena eta borondatea. Euskal hiztuna, subalternoa? Hiztun minorizatuari hurbilpen bat Gramsci eta Spivaken ekarpenen argira

ziren: batetik, generoak gainditzea, eta bestetik, diferentzia, desberdintasuna, emakumetasuna eta haren balioak.

1980ko hamarkadan, berdintasun-erakundeak sortzen hasi ziren, emakumeek agerpena izan zezaten erakundeetan, baina batzuek zioten hori beste subalternitate modu bat baino ez zela; izan ere, erakundeen hegemoniaren mende geratzen zen, nolabait, arlo hori, eta emakumeak kontrolpean izateko modutzat ere uler zitekeen. Berrero ere, gizonek zituzten boterea, balioa, prestigioa, ez emakumeek, eta haien parte bat emakumeen eskuetan uzten zutela zirudien arren, ez zen horrela.

Azken urteetan, berriz, termino batek hartu du indarra mugimendu feministan: boteretzea. Hala ere, *boteretzea* terminoarekin batera, beste bi termino ere agertu ohi dira: *ahalduntzea* eta *jabekuntza*, hain zuzen ere.

Jabekuntza da banakoa egoera jakin baten jakitun bihurtzea, kontziente egitea. Ahalduntzea, berriz, kontzientziatze horrek eraginda, egoerari aurre egiteko trebakuntza lortzea, eta boteretzea, berriz, trebakuntza hori erabiltzea gatazka eragiten duen egoerari aurre egiteko.

Boteretzeari helduta, esan daiteke ez dela termino berria, baina gaur egungo garapenari dagokionez, 1960ko hamarkada jo behar dugu. Honela jasotzen dute Maider Zilbeti eta Eva Martinezek Emakumeen boteretzea: saiakerak eta zailtasunak lanean:

“60ko hamarkadan, Amerikako Estatu Batuetan aurrera eramandako mugimendu sozial garrantzitsu baten hausnarketa eta ekintzaren oinarria izan zen. Black Power edo Black Empowerment mugimenduaren inguruan egin ziren aldarrikapen eta analisi teorikoak, aitzindariak izateaz gain, ezinbestekoak dira boterearen inguruko edozein hausnarketa kritiko

Jakin eta sentitu. Adimena eta borondatea. Euskal hiztuna, subalternoa? Hiztun minorizatuari hurbilpen bat Gramsci eta Spivaken ekarpenen argira

abiatu nahi dugunean eta jendartearen egituretan eraldaketa bilatzen dugunean” (Zilbeti eta Martinez, 2007).

Bistan denez, subalternoen mugimendu batekin lotuta ageri da terminoa, botereari aurre egingo dion mugimendu bat sortzeko. Mugimendu horrek, boteretzeko, kontzientzia eta tresnak behar dira ezinbestean.

Urte gutxiren buruan hasi zen termino hori mugimendu feministetan erabiltzen, baina haren bultzatzaileak ez ziren Mendebaldeko emakumeak izan, baizik eta Hegoaldekoak. Honela jasotzen dute terminoaren erabilera hori Zilbeti eta Martinezek:

“Bestetik, emakumeei dagokienez, bere lehenengo erabilerak Emakume eta Genero Garapena Ikerketekin erlazio zuzena dauka. Bere jatorria, zehazki, Sen eta Grown-ek 1985ean Nairobiko Emakumearen Hirugarren Mundu Konferentziarako prestatutako testuan kokatzen da. Idatzia, 1987. urtean argitaratu zen, eta gaztelaniara *Desarrollo, crisis y enfoques alternativos: Prespecticas de la mujer en el tercer mundo* itzulia izan zen. Honako testuinguru honetan, kontzeptua, Hegoaldeko Emakumeen Mugimenduak bultzatutako estrategia moduan agertzen da” (Zilbeti eta Martinez, 2007).

Gramsciren teoriara jotzen badugu, hark zioen talde subalternoek subalternitatearen jabe izan behar dutela, eta horrek emango diela subalterno izateari uzteko aukera. Boteretzea taldeari dagokio, eta taldeak indarra hartzen duenean, hegemonia hausteko eta hegemoniko bihurtzeko aukera izango du.

Honaino, labur-labur, mugimendu feministaren historia esan izan zaiona. Baina honaino iritsita, ezin ahaztu Indiako eta Latinoamerikako Ikasketa Subalternoen taldeek ziotena, edo Spivakek *Can the subaltern speak?* lanean idatzi zituen lehen lerroak. Mendebaldeak idatzi du historia, eta, noski, ahaztu

egin du bere eremutik kanpo geratzen den oro; mendebaldeak bere burua babesten du, eta bere burua indartzen duen historia kontatzen du. Baztertu egiten ditu historia horretan, Gramscik talde subalternoen kasuan zioen moduan, hegemoniko ez diren guztiak.

Feminismo poskolonialak ere bide horri ekiten dio Mendebaldeko feminismoari buruz hitz egitean. Esan daiteke, nolabait, feminismoaren historia horretan ez dutela beren historia kontatzerik izan kolonia izan ziren haiek, Guhak Ikasketa Subalternoen Taldearen sorrerari buruz zioenaren ildo beretik, eta, hala, beharrezko irizten diotela feminismo horien guztien historia ere kontatzea.

Feminismo-mota horrek aldarrikatzen du, gainera, arlo batean baino gehiagotan direla subalternoak, eta hori ere kontuan izan behar dela haien historia kontatu nahi denean. Eta, horretarako, hasiera batean, Mendebaldeko feminismo hegemonikoak ongi aztertu behar direla diote. Hori egin ostean, berriz, emakumeen autonomian oinarritutako estrategia feministak proposatu behar direla, betiere kontuan hartuta emakume horien geografiak, historiak eta kulturak. Hau da, batetik, feminismo hegemonikoaren dekonstrukzioa, Spivakek aipatzen duen bide beretik, eta, gero, mendebaldekoak ez diren mugimendu feministak bistaratzea.

Azken horiek esaten dute mendebaldeko feminismoak homogeneizatu eta sistematizatu egiten dituela mugimendu horiek guztiak, eta feminismoaren historia kontatzean mendebaldeko emakumearen gailentasuna adierazten dutela. Azken batean, historia horrek ez du emakume kategoria aztertzen, baizik eta kokapena. Spivakek bere testuan zioena hona ekarrita, esan daiteke mendebaldekoak ez diren emakumeek ezin dutela hitz egin, ezin dutela beraien mezua zabaldu, mendebaldekoen historia baita hegemonikoa. Subalternoa

Jakin eta sentitu. Adimena eta borondatea. Euskal hiztuna, subalternoa? Hitzun minorizatuari hurbilpen bat Gramsci eta Spivaken ekarpenen argira

ahotsik gabeko subjektua da, eta ezin du inork errepresentatu. Hitza hartzeko, eta errerepresentatzeko, subalterno izatearen kokapenetik atera behar du.

Azken batean, ulertu behar da emakume guztiak ez direla egoera berean bizi, gizarte-esparru berean, eta, beraz, hitzik hartu ahal ezin zuten haien historia kontatzeko, gizarte-alde horiek nabarmendu behar direla; azken batean, borroka feminista ezin dela homogeneizatu, eta hala, borroka horren zati handi bat borroka horren parte izango ez balitz bezala agertu. Baldintza eta egoera guztiak izan behar dira kontuan mugimendu hori aztertzeko.

Hala, azken urteetan, generoaz gain, beste diferentzia batzuk ere hartzen dira kontuan kokapen-gerrarako; adibidez, arraza, etnia, klasea, nazionalitatea eta erlijioa. Borroka berera batzen dira diferentziak, eta hortik aurrera hasten da historia eraikitzen, guztiei hitz egiteko aukera emanda. Interseksionalitateaz dihardu mugimendu honek, banakoa ez baitu ezaugarri bakar batek osatzen. Emakumea ez da emakume hutsa; hain zuzen arraza, etnia, klase, nazionalitate... jakin batekoa da, eta hori ere garrantzitsua da haren borrokan, ezinbestekoa tokian tokiko kokapen-gerretarako.

Mugimendu honek aldarrikatzen duena da subjektua izan daitekeela une batzuetan hegemoniko eta beste batzuetan subalterno, eta kasuan-kasuan aztertu behar dela hori. Garrantzitsuak dira subjektuaren baldintzak, baita subjektuaren ingurunea bera ere. Horregatik, talde subalterno baten historia kontatzeko orduan, horiek guztiak kontuan izan behar direla adierazten dute. Horrek, gainera, elkargune bat sor dezake haien guztien artean, guztiek hitz egin ezin ahal izateko arrazoi bera baitute. Batasunak indarra emango die etsai beraren aurkako kokapen-borrokari ekiteko.

Jakin eta sentitu. Adimena eta borondatea. Euskal hiztuna, subalternoa? Hiztun minorizatuari hurbilpen bat Gramsci eta Spivaken ekarpenen argira

Orain artean, *subalterno* terminoa lantzetik hasi eta mugimendu feministarainoko bidea egin dugu, eta kontzeptu ugari ekarri ditugu subalternoa zer den azaltzen saiatzeko. Gramsciren teoria azaltzean, talde subalternoek botere hegemonikoaren aurka egin behar dutela ikusi dugu, eta, horretarako, intelektual organikoak eta batasuna behar direla ezinbestean, kokapen-gerra bati ekin eta hark denboran iraun dezan. Guharen eta Spivaken kasuan ikusi dugu subalternoak isilaraziak direla, eta, horretarako, eliteak erabiltzen dituztela botere hegemonikoek. Haien ahotsa entzun dadin, elitearen historia eta errepresentazioak deseraiki behar dira, eta hitz egiteko, entzunaraziak izateko aukera eman subalternoei. Hala osatuko da historia, eta hala utziko diote subalterno izateari. Eta, amaitzeko, mugimendu feministaren kasuan, boteretzea eta batasuna nabarmendu behar dira. Boteretzeak kokapen-gerrarako bidea irekitzen du, eta, batasunak, borroka indartu.

Datozen orrialdeetan, berriz, hizkuntza minorizatu bateko hiztun garen heinean subalternoak garen aztertuko dugu, betiere Gramsciren eta Spivaken ekarpenen argira. Beraz, behin eta berriz erabiliko ditugu orain artean azaldutako terminoak eta ideiak.

Subalternoak gara euskal hiztunok?

Dagoeneko ikusi dugun moduan, subalterno izatea kokapentzat har daiteke. Subalternoak dira estatuaren historian parte hartzen ez dutenak, eta ez dute historia horretan parte hartzen ez zaielako aukerarik ematen hitz egiteko, haien mezuak isilarazi egiten direlako, errerepresentaziorik ez dutelako. Talde hegemonikoek osatzen dute historia, haiek baitute hitz egiteko aukera, eta, hegemoniko ez direnak kontakizun horretatik kanpo geratzen dira.

Hizkuntza minorizatueta hiztunak ez dira ageri, oro har, estatuaren historian hizkuntza horretako hiztun aktibo diren heinean (bereziki hiztun

Jakin eta sentitu. Adimena eta borondatea. Euskal hiztuna, subalternoa? Hitzun minorizatuari hurbilpen bat Gramsci eta Spivaken ekarpenen argira

minorizatuari elebitasuna inposatua zaion gizarteetan), eta, beraz, talde subalternotzat har ditzakegu. Talde hegemonikoek, gainera, baliorik eta prestigiorik gabe uzten dituzte hizkuntza minorizatuetakoko hiztunak. Ez diete lekurik egiten estatuaren historian, leku egitea balioa ematea baita. Eta talde subalternoei balioa ematea, besteak beste, estatuaren historian sartzeko aukera ematea da, hitz egiteko aukera ematea.

Euskal hiztunok bi talde hegemonikoren mende gaude. Alde batetik gaztelaniaz hitz egiten duen talde hegemonikoa dugu; beste alde batetik, berriz, frantsesez hitz egiten duen talde hegemonikoa. Bi hizkuntza horietako hiztunek funtzio guztietarako erabil ditzakete beraien hizkuntzak, inolako gatazkarik gabe, eskaera berezirik egin beharrik gabe. Hizkuntza ez dute arazo-iturri eguneroko bizitzan, eta, oro har, ez dute hizkuntzaren erabileraz hausnartu ere egiten.

Euskal hiztunok, berriz, ezin dugu hitz egin, ez behintzat beti. Ezin dugu gure hizkuntza erabili funtzio guztietarako, talde hegemoniko bateko hiztunak aukera hori kentzen digulako, edo, bestela, estatuak berak bere lege, botere eta autoritatearen bidez kentzen digulako aukera hori.

Kontuan izan behar da, gainera, halako egoera bat iraunkortzeak eragina duela talde subalernoarengan, eta erabaki behar duela talde subalerno horretako kide izan nahi duen ala ez, eta kokapen horretatik ateratzeko borroka egingo duen, ala, besterik gabe, amore eman eta balioa, prestigioa eta boterea dituen talde hegemonikoko kide izatera igaroko den.

Euskal hiztunon kokapen horren hainbat eta hainbat adibide ditugu, inolako zalantzarik gabe, gure historian. Gainera, gure historia kontatzea ere galarazi zaigu askotan, estatuak kontatu baitu berea, gurea ahaztuta; edo, bestela esanda, gurea ezkutatu nahian.

Jakin eta sentitu. Adimena eta borondatea. Euskal hiztuna, subalternoa? Hitzun minorizatuari hurbilpen bat Gramsci eta Spivaken ekarpenen argira

Horiek horrela, berriki izandako hainbat kasu ekarriko ditugu hona, euskal hiztunon subalternitatearen inguruan eztabaidatzeko.

Lehenengoa “Egian euskaraz bizi nahi dugulako” ekimena da, 2016an bertan Donostiako Egia auzoan aurrera eramandakoa. Ekimen hori, bistan denez, ezintasun batek eragin zuen: egunerokotasunean euskaraz aritzeko ezintasunak. Ekimenaren helburua zen zortzi astez euskara hutsean bizitzea. Horretarako, taldeak osatu ziren, eta talde bakoitzak konpromisoa hartzen zuen astebetetz euskara hutsean bizitzeko, eta, hala, aste bakoitzerako talde bat osatuta, zortzi astez luzatu zen ekimen hura.

Ekimenaren helburua honela definitu zuten ekimen horretarako sortu zuten webgunean: “Eguneroko egoera hauetan euskaraz aritzea eta hortik ikasitakoa konpartitzea da ekimen honen helburua; modu kolektiboan esperientziak trukitzea eta pausoak ematea, azken batean”.

Horrekin argi ikusten da bizilagun horiek ez zutela beti aukera euskaraz hitz egiteko. Aukera hori gabe geratzen ziren beste hizkuntza batean betetzen direlako askotan eguneroko bizitzako egoeretako funtzio asko eta asko, eta egoera horrek hitza kentzen zien beraien hizkuntzan. Egoeraz jabetuta, ordea, egoera hori aldatzeko urrats bat egitea erabaki zuten: kokapen-gerra bati ekin zioten, kokapen hori aldatzeko.

Talde subalternoko kide ez den hiztun batentzat pentsaezina da egunerokoan hizkuntza gatazka-egoera baten iturri izatea. Ez du berak hitz egiten duen hizkuntzaz hausnartu beharrik, ez du pentsatu beharrik zer hizkuntzatan hitz egin behar duen, ezta zer erantzun jaso ditzakeen ere bere hizkuntza erabiltzeagatik. Hitzun horrek darabilen hizkuntzak kokapen hegemonikoa du gizartean, eta, beraz, balioa, boterea, autoritatea eta prestigioa ditu. Hizkuntza minorizatu bat hitz egiten duen komunitateko kide

Jakin eta sentitu. Adimena eta borondatea. Euskal hiztuna, subalternoa? Hitzun minorizatuari hurbilpen bat Gramsci eta Spivaken ekarpenen argira

bat aurrean duenean, berriz, balio, botere, autoritate eta prestigiorik gabe uzten du hizkuntza minorizatuko hiztuna, bere hizkuntzan hitz egiten uzten ez dion bakoitzean. Berak bere hizkuntza darabil, eta besteak berera etorri behar du ezinbestean, komunikazio-ekintza bat aurrera eraman nahi denean, edo horren beharra dagoenean. Kokapen hegemonikoa duen hizkuntza darabilen hiztunak ez du zalantzan jartzen, gainera, hala egin behar ez denik.

Bigarren adibidea performance bat da. *Transitoak* performancea egin zuen Lutxo Egiak 2015ean Bilbon. Egian egin zuten ekimenaren aurrekaria da, eta performance horretarako Lutxo Egiak erabaki zuen hilabetez euskara soilik erabiliko zuela Bilbon, eta, beste hizkuntzaren bat erabili behar izatekotan, ingelesa erabiliko zuela. Hizkuntzen botere-harremanak aztertzeko ekimena da, nolabait, eta botere horiei buruz hausnarraraztekoa. Hizkuntza hegemonikoari kokapen hori kentzen dio ekimen horren bidez, eta horrek zalantza eragin diezaioke posizio hegemonikoa duen hizkuntzaren hiztunari haren kokapenari buruz. Ez gara sartuko halakorik lortu zuenik eztabaidatzera, ez baita hori performancea orrialde hauetara ekarri izanaren helburua.

Hona ekarri nahi dugun kontua bestelakoa da. Lutxo Egiak performancea egin ondoren, ekimen hari buruzko iritzia eskatu zioten Bilboko alkateari. Hark erantzun zuen Bilbon euskaraz bizitzea jarrera erradikala dela. Euskal hiztun batek galdera horri horrela erantzuteak kokapen hegemonikotik eraikitako aurreiritzi ugariaren isla dakar. Argi ikusten da euskara erabateko baliorik gabeko hizkuntzat hartu zuela, egoera batzuetarako komunikazio-baliorik gabeko hizkuntzat, gutxienez. Inork ez luke esango kokapen hegemonikoa duen hizkuntza bateko hiztunak Bilbon hizkuntza hori soilik erabiltzea erabakitzea jarrera erradikala denik; ez liokete jarrera horri buruzko iritzirik eskatuko komunikabideek Bilboko alkateari. Eta hipotesia beste hizkuntza batzuetara zabalduz gero ere, ez dirudi inork esango zuenik Bilbon euskara ez zen beste

Jakin eta sentitu. Adimena eta borondatea. Euskal hiztuna, subalternoa? Hiztun minorizatuari hurbilpen bat Gramsci eta Spivaken ekarpenen argira

hizkuntza bat soilik hitz egiten duen hiztunaren jarrera erradikala denik. Bestelako azalpenak emango lirateke hizkuntza-erabilera horretarako, baina ez litzateke adjektibo horretara joko egoeraren balioespen bat egiteko, inondik ere.

Alkatearen adierazpenak ezkututzen duena da euskarak ez duela tokirik Bilboko eguneroko bizitzako esparru guztietan. Alegia, kokapen subalternoa duela. Performancearen helburua ez zen hertsiki kokapen-gerra bat abian jartzea, banako batena, baina aukera ematen du ekimen horrek esparru mugatu eta jakin horretan egin zenak esparru zabalago batean zer eragin izango zukeen aztertzeke.

Hona hemen hirugarren adibidea. 2016ko apirilaren 7an onartu zen Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legea. Udalen eskumenak zehazten ditu lege berri horrek, eta, besteak beste, euskararen inguruko eskumenak esleitzen dizkie. Lege horrek elebitasun simetrikoa gainditzeko aukerak ematen ditu, euskara hutsean idatzitako dokumentuei balioa emanaz. Ezagunak dira udalek hainbat dokumentu euskara hutsean bidaltzeagatik izan dituzten salaketak, baita epaitegi batzuek dokumentu horiei eman dieten balioa ere.

Berriro ere legera itzuliz, lege horrek, euskararen kasuan, nolabaiteko autonomiaren zantzua ematen du. Legebiltzarrak arlo hori arautzeko eskumena du, edo hala egin du behintzat. Lege batean jaso du hori guztia, eta onarpena eman dio Legebiltzarrak, gehiengoak legearen aldeko botoa eman baitu.

Honaino etorrita, esan daiteke Gramscik aipatzen zuen autonomiaren aurrean gaudela.

Baina, berriki jakin da Espainiako Gobernuak Eusko Jaurlaritzari jakinarazi diola legea errekurritzeko aukera aztertzen ari dela, eta arazo-eragile den gaietako bat aipatu dugun horixe bera dela; hau da, dokumentuak euskara

Jakin eta sentitu. Adimena eta borondatea. Euskal hiztuna, subalternoa? Hiztun minorizatuari hurbilpen bat Gramsci eta Spivaken ekarpenen argira

hutsez egiteko aukera, beti elebitasun simetrikora jo beharrik izan gabe. Hortaz, non geratzen da gorago aipatu dugun autonomia? Estatuak autonomia ematen du, baldin eta autonomia hori ez bada erabiltzen talde hegemonikoen aurka. Nolabait esateko, itxurazko autonomia baino ez da: egiten uzten du, egiten duenak estatuak gogoko duen ordena aldatzen ez duen bitartean. Ez zaio aukerarik ematen autonomia hori baliatu eta kokapen-gerrari ekiteko.

Horretaz gain, badira beste bi kontu ere gai honetan. Bata balioa da: ez zaio baliorik aitortu nahi euskarari. Estatuak ez du nahi euskara baliozkoa izaterik. Ez du elebitasun simetrikoa defendatzen, baizik eta gaztelaniaren balioa, eta gaztelaniari ematen dio prestigioa. Beste kontua da ez diela hitz egiten uzten euskara hutsean idatzitako dokumentuei, eta duela uzten euskara hutsez idatzitako dokumentuek mezurik eman dezaten.

Hurrengo adibidea urtarrilean bertan Euskararen txantxangorria aurkezteko ekitaldian Patxi Baztarrikak egin zituen adierazpen batzuk dira. Honako hau esan zuen Hizkuntza Politikarako Sailburuordeak aurkezpen-ekitaldi hartan txantxangorriaz ari zela:

“Gonbidapena da irudi hau: borondateaz ari gara. Herritarren borondatean sinesten dugu. Herritarren gogoaren indarrean sinesten dugu. Ez dugu inor behartu nahi. Ez dugu nahi inor inoren gainetik egotea. Alderantziz, denok eroso egongo garen gizartea osatu nahi dugu”.

Baztarrikak zioen gonbidapen hutsa dela irudia, eta herritarren borondatean jartzen dutela, nolabait, erabileraren gakoa. Eta jarraian datoz gai honetarako aztergai diren hitzak: “Ez dugu inor behartu nahi. Ez dugu nahi inor inoren gainetik egotea”.

Alegia, haren hitzek diotenez, aukera bat da euskara erabiltzea, eta banako bakoitzak erabakiko du zer egin. Ez da inor behartu behar, ezta batzuk beste batzuen gaineratik jarri ere. Gramsciren teoriaren arabera, kokapen hegemonikoa lortu ezean, subalternoak gara, eta gure gizarte-ordenan euskara derrigorrezko egiten ez den bitartean, gutxienez bertan bizi direnei euskara ulertzea derrigorrezko egiten ez zaienean, sortzen diren komunikazio-egoerak tarteko, ezingo gara kokapen horretatik atera. Euskaldunok ez bagara inoren gaineratik jartzen, ez badugu euskara kokapen hegemoniko horretara eramaten, beste hizkuntzaren batek beteko du kokapen hori. Beraz, hemen dagoen mezua da gizarte-ordenak bere horretan mantentzera joko dela, sistema iraunaraztera.

Azken adibide bat ekarriko dugu hona, eta hasieran nahiko adibide berriak ekarriko ditugula esan badugu ere, hau ez da, berez, berria. Hezkuntza-sistemako hizkuntza-ereduak izango ditugu mintzagai jarraian, indarrean duguna, alegia, eta, horrenbestez, gaurkotasuna duena.

Hiru hizkuntza-eredu ditu EAEko sistemak. Ikaste-ereduetako bat A deritzona da: irakasgai guztiak gaztelaniaz ematen dira, eta euskara irakasgaia dute. Beste ikaste-ereduetako bat B eredia da: kasu honetan, irakasgai batzuk euskaraz irakasten dira, eta beste batzuk, gaztelaniaz. Hirugarren ikaste-eredua D eredia da: kasu honetan, irakasgai guztiak euskaraz ematen dira, eta gaztelania irakasgai dute.

EAEko hezkuntza-sistemaren helburua da, lurraldean ofizialak diren bi hizkuntzei dagokienez, ikasle guztiek bi hizkuntzak menderatzea derrigorrezko bigarren hezkuntza amaitzerako. D ereduak ongi betetzen du helburu hori, baina gutxi-asko helburua betetzen duen bakarra dela esan daiteke. B ereduak ez du lortzen ikasleek gaztelaniaz duten maila lortzea euskaraz. A ereduak, berriz, ez du lortzen euskara nahikotasunezko maila batez ikas dezaten ikasleek. Beraz, ikaste-eredu horiek ez badute betetzen zehaztuta duten helburua,

Jakin eta sentitu. Adimena eta borondatea. Euskal hiztuna, subalternoa? Hiztun minorizatuari hurbilpen bat Gramsci eta Spivaken ekarpenen argira

zergatik jarraitzen da ikaste-eredu horiek baliatzen? Zergatik ez da egin aldaketarik, hizkuntzen ezagutzari buruz zehaztu den helburua bete dadin?

Erantzun bat baino gehiago eman dakioke galdera horri, bista denez, baina mintzagai dugun arloa kontuan izanik, irakurketa jakin bat egin daiteke. Euskarak badu nolabaiteko prestigioa hezkuntza-sisteman, eta badu balioa, baina egungo egoeran ez da ez autonomiarik ez botererik egoera hori iraultzeko. Berriro ere jo behar dugu hizkuntzaren balioa aipatzera. Euskara ez da gaztelania bezain baliotsua gure gizartean, eta, beraz, gizarte honetan bizitzeko prestatzen diren ikasleei euskara derrigorrean ematea ez da funtsezkoa. Funtsezkoa ez denez, ez da berebiziko ahaleginik egiten egoera hori iraultzeko. Gainera, kontuan izan behar da hezkuntza-sistemaren helburuak betetze aldera hezkuntza-sistema osoan D eredia soilik eskaintzea erabakiko balitz, horrek kokapen-gerra bat eragingo lukeela. Euskarari orain ez duen kokapen hegemonikoa emango litzaioke, baina izango luke borroka hori irabazterik? Eta irabaziz gero, denboran jarraitutasuna ematerik?

Argi dago eztabaida ikaragarria piztuko lukeela halako erabaki batek, eta, horretaz gain, estatuak berak parte hartuko lukeela eztabaida horretan, bere kokapen hegemonikoa baliatuz. Balioa, prestigioa eta boterea hizkuntza hegemonikoari emango litzaioke, eta horretara bideratuko litzateke eztabaida, termino horiek erabili gabe ere.

Hau guztia aztertu ondoren, berriro dakarkigu hizpidera atal honi hasiera emateko egin dugu galdera: Subalternoak gara euskal hiztunok?

Eta hemen ikusi ditugun adibideak aintzat hartuta, argia da erantzuna: bai, subalternoak gara euskal hiztunok. Ikusi dugu badugula nolabaiteko autonomia, baina talde hegemonikoak ikusten duenean autonomia handiegia har dezakegula, berehala jotzen du autonomia hori bertan behera uztera.

Jakin eta sentitu. Adimena eta borondatea. Euskal hiztuna, subalternoa? Hitzun minorizatuari hurbilpen bat Gramsci eta Spivaken ekarpenen argira

Hori guztia kontuan izanik, eta Gramsciren teoriari jarraikiz, kokapen hori utzi behar dugu euskal hiztunok, eta beste kokapen bat lortu: talde subalterno izatetik, talde hegemoniko izatera igaro behar dugu. Gramscik esaten du, jada ikusi dugun moduan, talde subalterno izateari uzteko lehen urratsetako bat egoera hori onartu eta elkartzea dela. Elkartzeak indarra ematen du, kokapen-gerra horretan parte hartzeko adorea. Baina, kokapen-gerra hori aurrera eramateko ezinbestekotzat jotzen zituen intelektualak Gramscik. Argi dago nolabaiteko lidergoa beharko dela bide horretan, teoria hori gaur egungo garaira eta gizartera ekarrita, lidergoa izan bailiteke Gramscik aipatzen zituen intelektualen ordaina.

Mugimendu feministan zer gertatu den ere ikusi dugu, eta komeni zaigu euskal hiztunoi batez ere mendebaldekoak ez diren feministen kexuak eta eskaerak adi-adi entzun eta kontuan hartzea. Izan ere, Gramscik batasunaz zuen ideia horretarako esparru bikaina eskaintzen dute. Euskal hiztunak subalternoak gara, baina gure gizartean ez gara talde subalterno bakarra, eta, gainera, ez gara subalterno egoera guztietan, eta ongi gogoan izan behar dugu hori. Feminismoak, interseksionalitatearen teoria eta praktikaren bitartez, beste menderakuntza arlo batzuk bildu nahi dituen moduan, interesgarria da hitzun minorizatuaren talde subalternoa ere kontutan hartzea, eta horrekin, hitzun minorizatuak beste talde subalternoekin elkar hartzea, eta, hala, botere hegemoniko horri guztiek batera aurre egitea, arlo guztiak kontuan izanik. Horrela errazagoa izango da estatu berri bat sortzea, gizarte-ordena berri bat, errazagoa izango baita talde subalterno horien guztien borroka borroka bakar bihurtuta talde hegemoniko bihurtzea: kokapen-gerrari ekin eta gerra irabaztea, kokapen berria irabaztea, estatu bihurtzea, eta estatu izanik, guztien historia kontatzea, bakoitzaren berezitasunak kontuan izanik. Orduan izango dituzte, guztiek, boterea, balioa eta prestigioa.

Nola lor dezakegu hitz egitea?

Galdera horri erantzuna eman nahian, ez da zaila Txillardegiren hitz ezagunak gogoratzea:

“Hizkuntza bat ezin da salbatu bihotza ez badago tartean, ez bazaio dimentsio abertzalea ematen. Estatu batekin, agian, euskara ez da salbatuko; baina estaturik gabe, ziur ezetz. Estatua edukita, Irlandakoa gerta liteke, baina hori salbuespena da. Espero dezagun gu ez izatea bigarren salbuespena”.

Lan honetan, orain artean, luze eta zabal hitz egin dugu estatuaz, eta behin eta berriz aipatu dugu termino hori, baina ez, hain zuzen ere, Txillardegik ematen dion adieran. Esaldi horretan, gainera, bihotza ere aipatzen du. Guk, Gramsciren teoriari jarraikiz, sentitzeaz hitz egin dugu, baita borondateaz ere. Txillardegi bihotzaz hitz egitean, halaber, dimentsio abertzaleaz mintzo da.

Gure hizkuntzaren egoerari eta lurraldeari erreparatuta, egoera desberdinak ditugu, legeei gagozkielarik. Euskal Autonomia Erkidegoan hizkuntza ofizialak dira euskara eta gaztelania. Nafarroan, nahasixeagoa da egoera, eremuaren arabera zehazten baita hizkuntzen ofizialtasuna. Eta Iparraldean, euskarak ez du inolako ofizialtasunik.

Hala, bi hizkuntza hegemoniko ditugu euskararen lurraldean, euskarari euskal hiztunok eman nahi diogun kokapena kentzen. Iparraldean ez zaio ia autonomiarik ematen gure hizkuntzari, ez zaio uzten aurrera egiten; Nafarroan, nola-halakoa da egoera, eremu batzuetan autonomia pixka bat ematen baitzaio, baina ez beste batzuetan. Euskal Autonomia Erkidegoan, berriz, badirudi autonomia baduela. Baina badirudi diogu, honen aurreko atalean ikusi dugun moduan, autonomia hori baliatzen hazten denean, autonomia hori bera kentzeko edo ahultzeko urratsak egiten baitira.

Jakin eta sentitu. Adimena eta borondatea. Euskal hiztuna, subalternoa? Hiztun minorizatuari hurbilpen bat Gramsci eta Spivaken ekarpenen argira

Hiztun-kopuru handiak dituzte gure lurraldean ofizialak diren beste bi hizkuntzek; euskarak, berriz, hiztun gutxi ditu oraindik, eta ezagutzari ez ezik erabilerari ere erreparatzen badiogu, are kezkarriagoak dira datuak.

Azken bi datu horiek kontuan hartuta, ikusten dugu euskara ez dela hegemonikoa gure lurraldean, eta, gainera, talde subalterno garen heinean, gure historia zatikatua dela, subjektu guztiok ez ditugulako baldintza berak. Zatikatua da, batetik, lurralde-eremu osoan oso egoera desberdinak bizi direlako, eta bestetik, hiztun batzuek talde hegemonikoaren hizkuntza erabiltzen dutelako. Ez gara hori egiteko arrazoiak sakon aztertzen hasiko, baina bai ekarriko dugula gogora Gramscik zioena: talde hegemonikoek, hegemonia hori mantentzeko, hainbat estrategia erabiltzen dituzte, eta horietako bat da talde subalternoetako kideak beraien taldera erakartzea, asimilazioaren bidez. Gure lurraldean indar handia izan du asimilazio-nahi horrek mugaren bi aldeetan, eta ikusten da eman dituela hainbat fruitu. Estatuak bere botere guztia jarri du talde subalternoak desagiteko, edo, gutxienez, haiek izan zitzaketen autonomia eta boterea ahultzeko, eta horretarako egin duen bide bat da talde hegemonikora hurbiltzeko gonbidapena egitea.

Subalternook, subalterno izateari uzteko, hegemonia eskuratu behar dugula dio Gramscik. Baina nola lortzen da hegemonia hori? Hasieran ikusi dugun moduan, hiru termino lantzen ditu berak: estatua, gizarte politikoa eta gizarte zibila. Kokapen hegemonikoa izateko, taldeak estatua osatu behar duela dio, eta estatua gizarte politikoak eta gizarte zibilak osatzen dutela. Izan ere, estatua gizarte politikoaren aparatua da, eta gizarte zibila, gainegituraren uneak dira. Beraz, estatua osatu beharko genuke euskal hiztunok, subalterno izateari utzi eta hegemoniko bihurtzeko. Gaur egun ezagutzen dugun estatu-mota da hori zehazki eta ezinbestean? Nik ez nuke baiezko borobilik emango, edo ez nuke esango horrelakoa izan behar duenik ezinbestean. Izan ere, hiru termino

Jakin eta sentitu. Adimena eta borondatea. Euskal hiztuna, subalternoa? Hiztun minorizatuari hurbilpen bat Gramsci eta Spivaken ekarpenen argira

horiez ari dela, esaten du kasuren batean gizarte politikoa eta gizarte zibila gauza bera direla, eta esaten du, halaber, estatua izatea autonomia izatea dela. Gainera, autonomiaz ari dela, eta batez ere Erdi Aroko gizarteaz, esaten du nolabaiteko autonomia zutela talde subalternoek, eta, beraz, baita boterea ere. Beraz, esan daiteke autonomia hori edukitzea bera estatua izatearen parekoa izan daitekeela, baldin eta hori nagusitzen bada gunen horretan; hau da, baldin eta nolabaiteko hegemonia badu.

Estatu hori, bada, bi atalek osatuko lukete. Alde batetik, gizarte zibila legoke. Gizarte zibil hau euskal hiztunen multzoak osatuko luke, eta gogoan izan behar da hauen historia zatikatuaz mintzatzen dela Gramsci, eta garrantzi handia ematen diola atal honi. Gizarte zibilak, estatua lortuko badu, autonomiarik izango badu, batu egin behar du; heterogeneoa izanik ere, nolabaiteko homogeneotasuna behar du aurrera egin nahi badu.

Argi dago heterogeneotasunak garrantzi handia izango duela, mendebaldekoak ez diren emakumeek dioten moduan. Mugimendu batean ez badira kontuan hartzen diferentziak, ekintza horrek berak subalterno egiten ditu bazterrean uzten direnak, eta indarra kentzen dio horrek taldeari. Taldea zatikatzen du, eta haien historia zatikatua, are gehiago zatikatu. Hortaz, garrantzitsua da kontuan hartzea feminismo horrek egindako kritika, eta horren arabera jokatzeko.

Estatua sortzeko beste elementua gizarte politikoa dela dio Gramscik. Euskararen lurraldeko gizarte politikoaz ari garela, zer esan dezakegu? Batetik, gaur-gaurkoz autonomia txikia duela erabakiak hartzeko, eta, beraz, askatasun handirik gabe mugitzen dela. Izan ere, azken erabakiak ez ditu gure gizarte politikoak hartzen, baizik eta estatuak. Estatuak du azken hitza lege bat onartzeko garaian. Horixe bera ikusi dugu Euskadiko Toki Erakundeei buruzko legea dela-eta. Orduan, zer aukera ditu gizarte politikoak, gizarte zibilak

Jakin eta sentitu. Adimena eta borondatea. Euskal hiztuna, subalternoa? Hiztun minorizatuari hurbilpen bat Gramsci eta Spivaken ekarpenen argira

gainegituraren une horietako bat baliatzen duenean, hark egindako eskaerari erantzuteko? Bada, hemen esan daiteke gaur egungo egoeran ez duela aukerarik egiaz betetzeko. Badu aukera dagokion eremuan erabaki bat proposatzeko, baina proposamena baizik ez da izango, estatua izango baitu atzetik, haren eragina azertu eta onartuko duen ala ez erabakitzen. Hortaz, gizarte politikoak oraingo ez duen autonomia behar du gizarte zibilarekin batera estatua osatu ahal izateko.

Bada beste hausnarketarik gizarte politikoari dagokionez. Euskal hiztunok subalternoak garen edo ez aztertzean, gizarte politiko horretako kide diren pertsonaren adibideak izan ditugu mintzagai. Batetik, Bilboko alkatearen kasua aurkeztu dugu. *Transitoak* performanceari buruz galdetuta, alkateak erantzun zuen jarrera erradikala iruditzen zitzaiola Lutxo Egiarena. Txantxangorria aurkezteko ekitaldian, berriz, inor ez behartzeaz mintzatu zen Baztarrika. Gizarte politikoko kide hauek, bistan denez, talde hegemonikoaren ideietara lerratzen dira. Talde hegemonikoak dioena defendatzen dute, edo, bestela esanda, ez diote talde hegemonikoaren hegemonia horri aurre egiten. Ez dute gatazkan sartu nahi.

Horiek horrela, bestelako gizarte politiko bat behar dugula esan daiteke. Talde subalterno izateari utziko badiogu, gure taldearen beharrak defendatuko dituen gizarte politikoa behar dugu. Gizarte politiko horrek talde subalternoaren alde egin behar du, estatua sortzeko beharrezkoak diren urratsak eginez. Esan dugu gizarte politikoaren aparatua dela estatua, eta, beraz, ez badugu estatu horren alde egingo duen gizarte politikorik, hanka baten faltan egongo da gure mahaia.

Gizarte zibilari dagokionez, ere, bada esatekorik. Dagoeneko askotan aipatu dugu gizarte zibila batu egin behar dela mendekotasunezko posizio horretatik aterako bada, zatikatua baita. Baina nolakoa da gure gizarte zibila, eta

Jakin eta sentitu. Adimena eta borondatea. Euskal hiztuna, subalternoa? Hiztun minorizatuari hurbilpen bat Gramsci eta Spivaken ekarpenen argira

batez ere euskal hiztunok osatzen duguna? Argi dago ez dugula talde moduan funtzionatzen, eta bakoitza bere aldetik doala. Izan dira batzeko ekintzak, eta badira oraindik ere, baina horrek ez du lortzen aurrera egiteko batasunik. Unean uneko ekintzak izan dira, beste ezer baino gehiago, borondatearen berri ematekoak, baina ez dute hortik aurrerako bide oparorik egin. Hainbat arlotan, berriz, izan dira sinergia garrantzitsuak, baina horrekin bakarrik ezin aurrera egin. Egoera homogeneizatuz gero, esan daiteke bakoitza bere aldetik dabilela ahal duena egiten.

Orduan, estatua osatuko dituen gizarte politikoa eta gizarte zibila hain ahulak badira, nola lortuko dugu haiek indartzea?

Bada, badu galdera horri erantzun diezaiokeen ideia Gramscik, eta haren ideiarekin antzeko zerbaitekin landu zuen Ikasketa Subalternoen Taldeak. Gramscik *intelektual* eta Guhak eta haren taldekideek *elite* izendatu zituztenez ari gara.

Gramscik intelektual organikoak ezinbestekoak direla zioen. Intelektual horiek talde subalternoko kide izango liriateke, eta teoriaren eta praktikaren beharri erantzungo liekete. Gramscik dio gizarte zibilak intelektualak izan behar dituela ezinbestean. Intelektual horiek jakintza eta adimena jarriko lituzkete gizarte zibilaren sentimendu eta borondatea antolatzeko. Izan ere, gizarte zibilak sentitu egiten du, eta borondatea du, praktika aurrera eramateko borondatea, baina praktika horrek antolatua izan behar du. Hor sartzen dira intelektualak; hain zuzen ere, jakitea da intelektualen zeregina, alegia, gizarte zibilaren historia aztertu eta ezagutzea, eta adimenaren bidez, mugimendu hori guztia bideratzea, betiere oinarriak kontuan izanik.

Hortaz, gizarte politiko eta gizarte zibil indartsuak behar ditugu, eta egiteko horren guztiaren lagungarri, haren alde lan egingo duten intelektualak, edo, Guharen hitzak erabiliz, elitea. Ezinbestekoa da hori guztia aurrera egiteko.

Jakin eta sentitu. Adimena eta borondatea. Euskal hiztuna, subalternoa? Hiztun minorizatuari hurbilpen bat Gramsci eta Spivaken ekarpenen argira

Hala, gure historiaren berri eman ahal izango dugu, eta ez du inork hitz egingo gure izenean, eta, gainera, talde hegemonikoaren kokapena indartuz.

Euskal hiztunen komunitateaz ari gara hemen, baina kontuan izan behar da ez garela gure gizarteko talde subalterno bakarra, eta ez garela subalterno hizkuntza kontuetan soilik. Gaur egun osatzen dugun gizartearen oinarriak iraganean daude, eta iraganeko borroken, botere-harremanen, zatiketen, banaketen... ondorio dira. Hortaz, talde subalternoen gaia ez da esentzia kontua, baizik eta gizarte-erakuntza baten ondorio, eta hori betikotzea du helburu estatuak. Hemen Spivaken *Can the subaltern speak?* dokumentuaren hitzen oihartzunak entzuten dira. Spivakek Mendebaldeaz hitz egiten du dokumentuaren hasieran, eta esaten du Mendebaldeko ikuspegi kritiko erradikalaren jatorria Mendebaldeko subjektua bere horretan mantentzean datzala, eta, gainera, Mendebaldea subjektu bakartzat mantentzean. Guri dagokigun kasuan, estatu hegemonikoa bere horretan mantentzean datza ikuspegi kritikoaren oinarria. Estatu hori betikotzeko, ezin du onartu autonomiarik ematerik, eta, are gutxiago, egin dena zalantzan jartzetik. Talde subalternoek boterea hartzeko lan egiten dutenean, zalantzan jartzen dute botere hegemonikoa, eta zalantzan indarrean den gizarte-ordena. Azken batean, bi horiek dira subalterno egiten dituztenak, eta, beraz, horiek eraisteko lan egiten dute. Hitza hartzen utziz gero, eta ikuspegi kritikoaren berri ematen, astindu egiten dira boterearen oinarriak, eta boterea izateari utz diezaioke. Hori da botere hegemonikoak beti saihestu nahi izango duena, eta horretarako lan egingo du dituen baliabide guztiekin.

Talde subalterno bat gai da gizarte-ordena hori aldatzeko? Gizartea nolakoa, halakoa izango da talde subalterno baten indarra, baita garaipena lortzeko duen aukera ere. Euskal hiztunok izango genuke halakorik egiterik? Atzera begiratuta, badirudi ezezkoa izango litzatekeela, gaur-gaurkoz, lehen

Jakin eta sentitu. Adimena eta borondatea. Euskal hiztuna, subalternoa? Hiztun minorizatuari hurbilpen bat Gramsci eta Spivaken ekarpenen argira

erantzuna. Eta Gramscik zioenari jarraituz gero? Hau da, fronte bakarra osatzearen alde egingo bagenu? Gure gizartean, askotariko talde subalternoak daude, eta subjektu batzuk talde subalterno batean baino gehiagotan kokatzen dira. Guztien indarrak batuta errazago izango litzateke kokapen hegemoniko hori lortzea? Horren alde ageri da Gramsci, bakarrik baino indar gehiago metatzen delako elkarrekin lan eginda. Hortaz, feminismo poskolonialak eskatzen duena eginez gero, subalterno diren talde guztiak bat eginda, egun subalterno diren horiei guztiei hitza ematea lor daiteke.

Horren harira, komeni da gogora ekartzea azkenaldian indar pixka bat hartu duen galdera: Izan daiteke euskaldun, feminista izan gabe?

Hain zuzen ere, bi taldeak subalternoak dira, eta ezaugarri horrek batzen ditu biak ala biak. Helburu bera dute bi taldeek, estatuak bi talde horien gainean duen mendekotasunari ihes egitea, estatuak osatu duen eraikuntza horri itzur egitea. Gizarte-ordena aldatu nahi dute, gaur egun indarrean dagoenak kalte egiten baitie. Gizarteak eraikitako irudiak dira biak ala biak, biak subalternoak, eta, beraz, fronte bakarra osatuz gero, indartsuagoa izan daiteke mugimendua, eta aukera handiagoa izango du aldaketa hori eragiteko. Gainera, borroka horrek garaipena lortuz gero ere, mantentzea lortu behar da, eta horretarako ere bat eginda egotea komeni da.

Beraz, fronte bakarra osatzea izan daiteke aurrera egiteko bideetako bat, baina bi mugimendu horiek ez ezik, beste batzuk ere metatzerik izango litzateke, eta, hala, gizarte erabat aldatzea lortu.

Mugimenduak metatuta, Gramscik aipatzen zuen fronte bakar indartsua izango litzateke.

Eta nazioarteko batasun bat jarriko balitz helburutzat? Izan ere, han eta hemen daude talde subalternoa, eta esan dugu emakumeek botoa emateko

eskubidearen aldeko borroka hainbat herrialdetara zabaldu zela. Guztiek batera indar egitea lortu zuten emakume haiek, bakoitza bere eremuan ari zelarik ere, gainerako herrialdeetan ere eragina baitzuen mugimendu hark. Herrialde bateko emakumeen lorpenak indarra ematen zien borrokan ari ziren gainerako herrialdeetako mugimenduei, eta, gainera, bateko eta besteko talde hegemonikoak ikusi zuen ezinezkoa izango zela egoera hura bere horretan mantentzea, emakumeei eskubide hura luzaz ukatzea. Herrialde batzuek azkarrago onartu zieten emakumeei botoa emateko eskubidea, baina guztiek aldatu zuten, azkenean, gizarte-ordena hura. Hau guztia esanda, gauza bat argitu behar da: hemen hizpide ditugun herrialdeak ez dira munduko herrialde guztiak, baizik eta garai hartan herrialde garatutzat hartzen zirenak. Izan ere, mundu osoko emakume guztiek ez dute oraindik ez botoa emateko eskubiderik, ez gizarte politikoaren parte izateko eskubiderik ere, eta hori ez da ahaztu behar.

Eta herrialde garatuez ari garela, hemen ere kontuan izan behar da herrialde guztietan ez dela gizarte-ordena bera nagusitzen, eta emakumearen inguruko gizarte-eraikuntzak ere ez direla guztietan berdinak. Beraz, ezinezkoa da borrokak urrats eta denbora berak izatea leku guztietan, nahiz eta oinarrian dagoena beti gauza bera den.

Horrek, gainera, lagundu egin dezake subalternoen historia-kontakizunak ikusarazten. Spivakek zioen desikasi egin behar dela aurrera egiteko, eta, beraz, hasteko, talde hegemonikoak talde subalternoak mendean izateko eraikitako kontakizuna deseraiki. Hori izango da aurrera egiteko abiapuntua; hau da, desikastea eta deseraikitzea.

Eta urrats horiek guztiak egin ondoren, kokapen-gerra aurrera eramatea izango litzateke azken urratsa, Gramsciren teoriari jarraikiz. Ez da berehala amaituko den gerra izango, aldaketa garrantzitsu eta sakonak egitea eskatzen

Jakin eta sentitu. Adimena eta borondatea. Euskal hiztuna, subalternoa? Hiztun minorizatuari hurbilpen bat Gramsci eta Spivaken ekarpenen argira

baitu, eta talde hegemonikoak ez baitu hain erraz amore emango bere subjektuarengan halako aldaketa handirik egiteko, eta, nolabait, kokapen hegemoniko hori galtzeko. Eta adi ibili beharko da garaipena lortuz gero ere, garaipenak jarraitutasuna izan dezan lan egin beharko baita.

Hau guztia aztertuta, esan daiteke, labur-labur, eta Gramsciren proposamenari jarraikiz, prozesu luze bati ekin behar zaiola. Horiek horrela, gizarte politiko eta gizarte zibil indartsua behar ditugu estatu berri bat osatzeko, gizarte-ordena berri bat osatzeko, eta horretarako intelektualak ere beharko ditugu, sentimenduekin eta borondatearekin batera, desikasi eta deseraikitzeak ematen dituen jakintzak eta adimenak gidatu dezan kokapen hegemonikora eramango gaituen kokapen-gerra. Orduan hitz egin ahal izango dute egun subalterno diren taldeek.

Jakin eta sentitu. Adimena eta borondatea. Euskal hiztuna, subalternoa? Hiztun minorizatuari hurbilpen bat Gramsci eta Spivaken ekarpenen argira

Bibliografia

ASENSI, Manuel (2009): «La subalternidad borrosa. Un poco más de debate en torno a los subalternos», in *¿Pueden hablar los subalternos?*, 9.-39. orrialdeak.

BISWAS, Amrita (2009): «Research Note on Subaltern Studies», in *Journal of Literature, Culture and Media Studies*, 1. liburukia, 2. zenbakia. 200.-205. orrialdeak.

DE GOUGES, Olympe (1791): *Emakumearen eta emakumezko herritarraren eskubideen adierazpena*, kondaira.eus (Azken kontsulta-data: 2016ko uztailaren 18a).

DEL ROIO, Marcos: «Gramsci y la emancipación de lo subalterno», in *Herramientas*, <http://www.herramienta.com.ar> (Azken kontsulta-data: 2016ko uztailaren 18a).

EL HABIB LOUAI (2012): «Retracing the concept of the subaltern from Gramsci to Spivak: Historical developments and new applications», in *African Journal of Historical and Cultural Studies*, 4. liburukia, 4.-8. orrialdeak.

GOIKOETXEA, Jule (2015): «Euskaldun egiten gaituena», in *Berria*, 2016ko ekainaren 10a.

GOIKOETXEA, Jule (2015): «Euskara, estatua eta feminismoa», in *JAKIN*, 208. zenbakia, 77.-89. orrialdeak.

GRAMSCI, Antonio (1999): *Selections from the Prison Notebooks*. ElecBook, London.

GUHA, Ranajit (1999): *Elementary aspects of peasant insurgency in colonial India*, Oxford University Press.

Jakin eta sentitu. Adimena eta borondatea. Euskal hiztuna, subalternoa? Hitzun minorizatuari hurbilpen bat Gramsci eta Spivaken ekarpenen argira

LUDDEN, David: «A Brief History of Subalternity», in *Reading Subaltern Studies Critical History, Contested Meaning and the Globalization of South Asia*, Anthem Press, 1.-39. or.

MIYARES, Alicia: 1848: *El manifiesto de «Seneca Falls»*, http://pmayobre.webs.uvigo.es/textos/varios/seneca_falls.pdf (Azken kontsultadata: 2016ko uztailaren 18a).

SANDOVAL, Pablo (2010): *Repensando la subalternidad. Miradas críticas desde/sobre América Latina*. Envi3n Editores, Peru.

SMITH, Kylie (2010): «Gramsci at the margins: subjectivity and subalternity in a theory of hegemony», in *International Gramsci Journal*, 2. zenbakia, 2016ko apirila, 39.-49. orrialdeak.

SPIVAK, G. C. (1998): «¿Puede hablar el sujeto subalterno?», in *Orbis Tertius*, 3. liburukia, 6. zenbakia, 175.-235. orrialdeak.

VAZQUEZ, Vanesa: *Las contribuciones del feminismo poscolonial a los estudios de g3nero: interseccionalidad, racismo y mujeres subalternas*, in http://www.perfiles.cult.cu/article.php?article_id=267 (Azken kontsultadata: 2016ko uztailaren 18a).

ZILBETI, Mainer eta MARTINEZ, Eva (2007): «Emakumeen boteretzea: saiakerak eta zailtasunak», in *Uztaro*, 61. zk.